


Euskal liburugintza 2001

JOAN MARI TORREALDAI



ARGITALETXEAK



TITULUAK ETA TIRADAK



NOBEDADEAK / BERRARGITALPENAK / ITZULPENAK



HEZKUNTZA ETA IRAKASKUNTZA LIBURUAK



HAUR ETA GAZTEENTZAKO LIBURUAK



GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK



LITERATURA

*Egunen gurpilean*JOSEBA BALERDI • LAURA MINTEGI
• IÑAKI MARTINEZ DE LUNA • AMATIÑO

JAKiN

134

urtarrila
otsaila
2003



Aldizkari hau ARCEko kidea da
(ARCE: Asociación de Revistas Culturales de España)




*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura
eta Euskara Departamentuaren laguntza jaso du*



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Aurkibidea



Zenbaki honetan

► 7

Ciburuak

Euskal liburugintza 2001 ► 11
JOAN MARI TORREALDAI

Egunen gurpilean

JOSEBA BALERDI • LAURA MINTEGI ► 119
• IÑAKI MARTINEZ DE LUNA • AMATIÑO

© JAKIN

JAKINeko idazlanean inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria

JAKIN

aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

ZUZENDARIA

Joan Mari Torrealdai

ERREDAKZIO-ARDURADUNA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia


Tel. 943 21 80 92 / Fax 943 21 82 07

jakin@jakingunea.com

2003ko PREZIOAK

BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
Harpidetza	39 €	—
Ale arrunta	6,50 €	8,40 €
KANPOAN		
Harpidetza	42 €	—
Ale arrunta	7 €	9,60 €

Summary




Basque Bibliography 2001

Joan Mari Torrealdai, the editor of *Jakin*, publishes the catalogue of all the books published in Basque during 2001, together with an appraisal of the development of bibliographical publication in the Basque language. In 2001, 1,488 books were published in the Basque language, 31 less than in the previous year. Most of these publications are school books (29,6%), followed by children's and young people's literature (27,-%), books on human and social sciences (18,4%) and literature for adults (15,8%). Torrealdai has been cataloguing Basque bibliographical publication since 1976. ► JOAN MARI TORREALDAI



News today

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following culture, sociolinguistic, communication and literary-related matters. This section draws on various specialists: Joseba Balerdi, Iñaki Martínez de Luna, Amatiño and Laura Mintegi. ► *Various Authors*




e skuetan duzun hau bigarren aldiko 134. zenbakia da eta 2003. urteko lehenengoa.

Zenbaki honetako edukien artean *Liburuak* sailari dagokio zatirik handiena. Izan ere, Joan Mari Torrealdai *Jakin*-eko zuzendariak, aurreko urteetan egindakoaren il-do beretik, 2001. urtean euskaraz argitaratutako liburuen katalogoa aurkezten digu.

Torrealdaik urtero egiten duen lana ez da mugatzen, dena dela, liburuen zerrenda hutsa eskaintzera. Ohi duenez, oraingo honetan ere euskal liburuen urteko ekoizpenaren azterketa eta balorazioa osatu du. 2001eko euskal liburugintzaren azterketa honetan ere, beraz, hainbat datu eta zifrarekin batera, analisisia eta balorazioa datoz. Honako alderdi hauek landu ditu egileak: lehenik, argitalgintzari dagokionez, liburu ekoizleen aniztasuna eta argitaletxe emankorrenen aipamena; bigarrenik, argitalpenaren zifren inguruan, argitaratutako tituluaren zifrak, nobedadeak eta berrargitalpenak, jatorrizko eta itzulitako liburuak; eta, azkenik, gai multzoen sailkapenari buruzko datuak eta azterketa. Kopuru nagusiak aipatzearen, 2000. urtean 1.488 liburu argitaratu ziren, 2000.ean baino 31 gutxiago. Urtero legez, liburu gehienak hezkuntza eta irakaskuntza arlokoak izan ziren: 441 (produkzio osoaren %29,6); ondoren, haur eta gazte literaturako liburuak (402, %27,-), giza eta gizarte zientziei buruzkoak (274, %18,4) eta helduen literaturakoak (235, %15,8). Azterketaren ondoren 1.488 tituluon zerrenda osoa dator.


Egunen Gurpilean saila dator azken orrialdeetan. Ohi denez, azken hilabeteotako berrien iruzkin labur eta bi-ziak dakartzate iazko kolaboratzaileek: Joseba Balerdik Kultura alorrean, Laura Mintegik Literaturan, Iñaki Martinez de Lunak Soziolinguistikan eta Amatiñok Telepolis atalean.¶

Ciburuak



JOAN MARI TORREALDAI
Euskal liburugintza 2001

11



Euskal liburugintza 2001



J O A N M A R I T O R R E A L D A I



2 5 urteko eskarmentua eta guzti heltzen diogu orain XXI. mendeko liburugintzari.

Garai batean pentsatu nuen, eta halaxe esan, XX. mendearekin batera amaituko nuela neurea ere alor honetan. Baina «ofizio/afizio» bikoteak tinko dirau nire baitan eta aurrera segitzekotan naiz, «laguntzak lagun». Hain zuzen ere, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin azken katalogo-liburua argitara eman nuenean horixe esan nuen hango sarreran hitzez hitz, laguntzarik banu aurrera egingo nuela. Beraz, laguntza hori bihotzez eskertzen dut eta goraki aupatzen berari esker delako posible zerbitzu hau Euskal Herri osoari eskaintzea. Nire eskerrik beroenak, hortaz, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuari.

Bakoitzari berea aitortu eta eman ondoren, noan harira, hau da, 2001. urteko liburugintza aurkeztu eta aztertzerara.

Jarduera editoriala

Edizio agenteak

Lehen go lepotik du burua ekoizpenak. Mende hasierak ez du ekarri hasiera berririk liburugintzan.

.....
► **Joan Mari Torrealdai** Soziologian doktorea eta Kazetaritzan lizentziatua da.

2001. urtean 1.488 titulu kontabilizatu ditut, aurreko urtean baino ale batzuk gutxiago. Baina, tituluak gutxitu arren, edizio agenteak gehitu egin dira. Honekin batera eskaintzen dudan liburu zerrendan 242 agertzen dira, aurreko urteetan baino gehiago. Arrazoi ematen die honek produkzioaren atomizazioaz eta ahuleziaz hitz egin dute-nei. Hona produkzio osoa titulu kopuruaren arabera mailakatuta eta argitaratzaileka multzokaturik:

<i>Tituluak</i>	<i>Argitaratzaileak</i>
1	144
2-4	53
5-9	20
10-19	10
20-29	6
30-39	2
40-49	1
50-59	0
60-69	0
70-79	2
80-89	0
90-99	1
100-149	2
150etik gora	1

Taula hau beste modu batean irakurrita esan dezagun argitaratzaileetan ia %60k urte osoan titulu bat bakarra eman duela argitara. Beste hau erantsi behar zaio horri: 2 titulutik 20ra bitartean publikatu dituztenak %34 dira. Zifra izugarri altua ematen du honek, ez liburu kopurutan noski, baizik eta argitaratzaileen multzoan: 20 titulu baino gutxiago urtean zehar publikatu dituztenak argitaratzaileen ia %94 da. Zehaztuz, argitaratzaileen %94 horrek liburuaren %36,4 publikatu du. Desproporzio galanta.

Zifra absolututan hitz eginez, 15 argitaletxe soilki dira 20 titulu edo gehiago atera dituztenak: %6 pasatxo, alegia. Hauetatik lau edizio publikokoak dira, hiru gutxienez kanpoko argitaletxe bati lotuak. Pribatuak, hortaz, hamaika dira, «lehen hamaikak» taulan agertzen direnak.

Taula horrek, bestalde, agerian uzten du beste ahulezia bat ere: zein argitaletxe gutxi dagoen 40 titulutik 100 bitartean. Lau bakarrik dira.

Taularen gailurrean Elkarlanean argitaletxea ageri da hurrengotik alde handiz, 346 titulurekin, horietatik 148, testuliburuak hain zuzen, Ikastolen Elkartearekin batera atereak.

Edizio agenteen artean bospasei «izaera» edo mota ezberdin bereiz genitzake. Batzuk argitaletxe komertzialak dira, eta hauen artean badira bertokoak edota kanpokoren bati lotuak; beste batzuk argitaletxe publikoak dira, Gobernu edo Aldundiak esaterako, eta gure kasuan liburu bakarreko 144 horien artean asko udaletxeak dira; ugari dira, baita ere, elkarte, talde, fundazio, museo, erlijio-etxe eta honelakoak ere; bosgarren talde bat ere bereizi nahi izan dugu, irakaskuntzari hertsiki lotua, EHU, UEU edo Ikastolen Elkartea, besteak beste.

Ondoko taulan azaltzen dira izaera desberdinetako ekoizleen kopurua eta emaitzak:

<i>Argitaratzaile mota</i>	<i>Kopurua</i>	<i>Ekoizpena</i>	<i>%</i>
Bertoko argitaletxe pribatu komertziala	53	714	48,-
Argitaratzaile publikoa	63	259	17,5
Elkarte, talde, fundazio, erlijio-etxe...	84	150	10,-
«Kanpoko»	20	138	9,5
Irakaskuntzakoa	8	195	13,-
Besterik	14	33	2,-

Lehen hamaikak

Panorama editorialaren argitzapen honetan beste urrats bat emanez, argitaletxe indartsuenen lana ikusi behar da. Esan dugu arestian 15 argitaratzaile direla 20 titulutik gora atera dituztenak. Hauetako batzuk argitaldari publikoak dira: zehazki, Eusko Jaurlaritz (77 titulurekin), HABE (43 titulurekin), EHU (22 titulurekin) eta Gipuzkoako Foru Aldundia (22 titulurekin).

Hona 2001. urtean 20 titulu edo gehiago atera dituzten argitaratzaile pribatuak. Hamaika dira denetara, bertoko nahiz kanpoko:

<i>Argitaletxea</i>	<i>Nobedadeak</i>	<i>Berrarg.</i>	<i>Titulu kopurua</i>	<i>%</i>
Elkarlanean	61	137	198	13,3
Elkarlanean/ Ikastolen Elkartea	2	146	148	10,-
Ibaizabal	94	39	133	9,-
Erein	47	47	94	6,3
Ttarttalo	77	0	77	5,2
Aizkorri	26	12	38	2,5
Zubia	32	0	32	2,1
Hiria	28	0	28	1,9
Desclée De Brouwer	14	8	22	1,5
Giltza	21	0	21	1,4
Alberdania	15	5	20	1,3
<i>Guztira</i>	<i>417</i>	<i>394</i>	<i>811</i>	<i>54,5</i>

Taula honetako goialdeko izenak urtero izen berak dira. Aldaketak, daudenetan, beheko mailetan egon ohi dira, batzuk erori eta berri batzuk sartuz.

Nahiz aurreneko begi-kolpean ikusi ez, seinalatzekoa da hamaika editore hauen produkzio indarra jaitsi egin dela aurten. Iaz baino 100 bat titulu gutxiago produzitu dute. Ekoizpen osoaren %54,5 izan da berauen emaitza eta iazkoan, aldiz, lehen hamaiken artean titulu kopuruaren %62 osatu zuten. Ez da agian oso inportantea diferentzia hau, baina aski esanguratsua iruditzen zait, sintoma bezala gutxienez. Editore hauek baitira, izan ere, liburugintzaren berme handiena. Hauen produkzioa jaitea ez da seguruenik debaldekoa. Eta horregatik diot titulu kopurutan berdintsu ibiltzea engainagarria izan daitekeela beste datu hau eta hau bezalako beste batzuk kontuan hartzen ez bada. Ez da ahaztu behar titulu bakaneko argitaratzaile askoren ekarpena behin-behinekoa izan daitekeela.

Berrargitalpenaren pisua argitaletxe hauetan kokatzen da gehiena, normala den bezala: erdia da ia-ia, %48,5. Baina ez da pentsatu behar argitaletxe guztiek berrargitalpen politika bera dutenik. Ez bera, eta ez berdintsua. Aparte kontsideratu behar da Ttarttalo, honen egitekoa liburu suntsikorrak argitaratzea baita. Beste guztiek, ordea, irakaskuntza edo/eta literatura lantzen dute, eta beren politikak alderagarriak dira. Atentzioa ematen du batzuen kasuan zein den eskasa berrargitalpena, Giltza eta Hiriaren kasua

lekuko. Gehienek maila apalean mantentzen dute berrargitalpena: Alberdania (%25), Ibaizabal (%29,3), Aizkorri (%31,5), Desclée De Brouwer (%36,8). Ereinen justu ekoizpenaren erdia da berrargitalpena (%50). Eta azkenik, berrargitalpenaren politika diferentziatua markatzen duena Elkarlanean da. Honen produkzio osoaren %81,8 da berrargitalpena. Ikastolen Elkartea rekin batera egiten duen testugintzan %98,6 da berrargitalpena. Eta testugintzatik aparteko liburugintzan %69.

Itzulpen politikan ere diferentzia handiak azaltzen dira editorial batetik bestera. Esan behar da, gainera, itzulpenaren pisua nire zifrek markatzen dutena baino handiago izan daitekeela, kasu batzuetan zenbait itzulpen kamuflatu egiten baita.

Itzulpenak indar gehien ondoko argitaldari hauetan du: Giltza (%71,4), Desclée De Brouwer (%55,5), Aizkorri (%44,7), Ibaizabal (%38,5). Maila apalagoa du honako lauotan: Hiria (%21,4), Elkarlanean (%20,8), Erein (%20,2), Alberdania (%10). Ez dago batere itzulpenik Elkarrek eta Ikastolen Elkarreak elkarlanean ateratzen duten testugintzan.

Hamaika handienen atal hau amaitze aldera esango nuke euskal editorialgintzak dentsitate edo trinkotasun nahikoa eskasa azaltzen duela. Horren sintomak edo aztarnak arrazoi bat baino gehiagotan aurkitzen ditut: guztien arteko produkzio maila jaitsi da; berrargitalpenak indar gutxiegi du argitaletxe gehienetan; itzulpenak indar gehiegi txo du zenbait editorialetan. Honek guzti honek, oker ez banago, editorialgintzaren argazki nahiko ahula erakusten du, trinkotasun eta sendotasunaren aldetik behinik behin.

Ematen du euskal editorialgintzak espainiar argitaletxeen eredu jarraitzen duela. Jakina da eredu honek gorakada nagusia titulu berritan funtsatzen duela. Hori, niretzako, «fuite en avant» da, ihesa. Askoz gustukoagoa dut nik eredu frantsesa, sekulako indarra ematen baitie argitaletxe frantsesek berrargitaraldiei eta hortaz merkatu berriei. Berrargitalpena, Frantziako edizioan, %60 hurbil da. Eta gurean %27. 2001. urteko edizioan, gainera, hazi egin da. Liburugintzak bere osoan %4,9 egin du gora, eta horren barruan nobedadeek %2,6 eta berrargitalpenek %7,2.

Eskaientza editoriala

Titulu kopurua

Aurreratu dugu 2001. urteko ekoizpena 1.488 titulu-takoa dela. Urte horretako lege gordailua daukatenak bildu ditugu hemen. Ia-ia guztiak dira ISBNdunak, baina ez ehuneko ehun. Urtero bezala, ISBN gabekoetan salbuespen batzuk egin ditut, liburuaren interes orokorra eta zabalakundea kontuan izanda. ISBN gabeko beste asko zerrendatik kanpo utzi ditut, 150 bat, erakusketa edo katalogoen berri ematen dutenak horietako hainbat.

ISBNdun guzti-guztiak ere ez ditut hemen ematen, nahiz eta datu basean sartuta eduki badauzkadan. Dozena bat ISBNdun kanpoan utzi ditut. Liburu elektronikoaz ari naiz. Ez ditut horiek oraingoz kontabilizatu, alderaketa irizpideak ez aldatzearren.

Aurten lehen aldiz ISBN espainiar agentziak nik baino titulu kopuru handiagoa eman du. 1.528 titulu ekoiztu omen dira 2001. urtean euskaraz. Espainiar agentziak liburu elektronikoa barnean hartuko zuen. Beldur naiz, iaz bezala aurten, Elkarrek eta Ikastolen Elkartean ateratzen dituzten testuliburuak, bi ISBN dituztenez, bi aldiz kontatuta egongo direla.

Gehiago harritu naute Precisa enpresak Euskadiko Editoreen Elkarterako (ez Euskal Editoreen Elkarterako) egin duen lanean emandako zifrek: 1.621 titulu 2001. urtean argitaratutzat. Berriz diot harritzen nauela zifra altu honek, azterketaren markoa eta baldintzak ezagututa. EAEn ateratzen diren liburuak bakarrik aztertzen ditu Precisak, espreski ohartarazten baitu hortik kanpo euskaraz atera arren bere ikerketatik kanpo daudela. Eta gainera: argitalpen pribatua bakarrik aztertzen du eta, hortaz, edizio publiko guztia ere azterketatik kanpo dago, nire fitxategian 259 titulu. Eta hala eta guztiz ere 1.621 titulu, nik baino 133 gehiago?

Nolanahi ere, urterokoa errepikatuko dut: zifrak ez direla sakralizatu behar, alegia. Liburu guztien berri jakitea zaila da eta are zailagoa biltzea. ISBN agentziak editoreek bertara bidaltzen dituzten fitxak kontabilizatzen ditu; Pre-

cisak ere argitaratzaileak ditu iturburu, hauetako batzuk, ez guztiak. Bakoitzak ditu bere iturriak eta nork bere metodologia. Nik handik eta hemendik lortzen dut informazioa, eta liburu bakoitza fitxatu, lagun eta argitaratzaileen laguntzarekin askotan. Baina gutxien uste denean uzten da gutxien uste dena kanpoan. Hori ere egia biribila da.

Azterketa batetik bestera dauden aldeak ez dira hiruzpalau titulutara mugatzen. Erreferentzia bezala erabili ohi diren kopuruak diferentzia handikoak dira, iturrien arabera, hurrengo taulan ikus daitekeenez:

<i>Urtea</i>	<i>1999</i>	<i>2000</i>	<i>2001</i>
<i>Iturria</i>			
Precisa	1.360	1.589	1.621
ISBN espainiar agentzia	1.250	1.428	1.528
Espainiar Liburu-Zuzendaritza		1.266	1.358
Joan Mari Torrealdai	1.589	1.519	1.488

Informazioa osatzearen, esan behar da EAEko Estadistika Erakundeak (Eustat) nire datu berak erabili ohi dituela.

Berriz diot 2001. urteko zat jo eta hemen aztertu dugun uztak 1.488 titulu dituela.


Iaz baino titulu batzuk gutxiago dira horiek, bi puntu gutxiago. Iaz ere jaitsiera izan zen, orduan handiagoa. Bi urte gidan jaitsiera izan duenez, ez dakit horrek esangura berezirik duenez. Zehatzago aztertuta konturatzen gara, gainera, aurtengo jaitsiera berrargitalpenetan izan dela. Kezkagami izan liteke datu hau, deskuidoan iraunkorra baltz. Oraindik goiz da hori jakiteko, perspektiba luzeagoa behar dugu eta. Datorren urteak argituko du zertxobait gehiago, orduan jakingo baitugu editore nagusiek nola erreakzionatu duten. Dagoeneko badakigu sektorea kezkatuta dagoela. Gerakuntza sumatzen da liburu salmentan. Eta editore handiek frenatu egin dute produkzioa, itxura denez. Horrela interpreta daiteke, nire ustetan, aurtengo editore nagusiek 100 titulu gutxiago argitaratu izana.

Joera honen baieztapen edo ezeztapenaren zain, esan behar da aurreko hamarkadan jaitsierak egon izan direla gehiagotan ere: 1992, 1994 eta 1996 urteetan hain zuzen ere, bi urtez behin edo. Baina, hori bai, 1997tik aurrera, iaz


arte, etengabeko gorakada markatu izan du ekoizpenak. Mende berriaren batera fase berri batean sartu ote gara?

Etorkizunari buruz ezer gutxi dakigu, baina baditugu aurreko urteetako datuak eta komeni da aurtengo produkzioa, titulu kopuruari dagokionez, perspektiba zabalagoan kokatzea. Ikuspegi zabalago hori azaltzen da hain zuzen hurrengo bi grafikoetan.

Titulu produkzioa urtez urte



Tituluen eboluzioaren indizea



Sektorearen kezka

Titulu kopurua bi puntutan jaitsi izana ez da berez kezgarria. Baina aitortu behar da produkzioaren maila altu horrek errealitate gordinagoak ezkuta ditzakeela. Aipatu dugu bat eta da edizio-agente txiki asko egon ez bali-

ra, modu nabarmenean jaitsi zitekeela edizioa. Edizioa sostengatzen duten handiek frenatu izana bada esanguratsua.

Liburugintzaren sektorea kezkatuta badago egongo da motiborik. Gehiago jakiteko salmentaren informazio zehatza beharko genuke. Tiradak zenbatekoak diren, esaterako. Eta salmentaren gorabeherak nola joan diren.

Tiradak beheranzko joerarekin aspalditik datozela gauza jakina da. Joera nahikoa orokorra da beheranzkoa, antza denez. Espainian, esaterako, urtetik urtera ale gutxiago atera ohi da: 1998an 4.246 alekoa zen batez beste ko tirada eta 2001. urtean 3.496 alekoa da. Etengabea da jaitsiera, aurreko urtetik ere 7 puntu jaitsi baita jada beste hainbeste jaitsia zen espainiar edizioko tirada.

Euskarazko liburuaren tiradaren berri jakiteko iturri bakarra dugu, Precisa azterketa etxea. Oraindik publikatu gabe duen txostenean datu hauek azaltzen ditu:

<i>Liburu mota</i> \ <i>Urtea</i>	1999	2000	2001
Literatura	1.433	1.837	1.649
Haur/gazteentzakoa	2.606	2.411	3.220
Irakaskuntza ez unibertsitarioa	4.321	3.476	2.753
Lib. unib. + Zientzia	2.240	645	848
Giza/gizarte zientziak	1.254	10.156	1.239
Liburu praktikoa	3.360	5.804	2.196
Dibulgaziokoa	2.661	6.109	4.664
Hiztegiak/Entziklopediak	5.645	5.103	4.469
<i>Batez bestekoa</i>	<i>3.136</i>	<i>2.902</i>	<i>2.920</i>

Atalez atal begiratzuz gero badira zifra harrigamiak. Liburu praktikoa eta giza/gizarte zientzietakoetan zera gertatzen omen da, diote Precisakoek, titulu gutxi direla eta botaldi oso desberdinekoak izan daitezkeela. Harrigaria da, baita ere, haur eta gazteentzako liburuaren tirada igo izana, ezpadaze kolorezko liburu gehiago atera delako. Zernahi gisaz, bada gauza bat argi eta garbi gelditzen dena hemen eta da tiradaren beheranzko joera hori, batez bestekoan ikusten dena, eta atal batzuetan are nabarmenagoa dena.

Zehaztasunetara joz, atal bakoitzaren barruan liburuak eta liburuak bereizi beharko genituzke, gainera. Literaturan, esate baterako. Ez dira tirada berdinak egiten narratiban, olerkian, saioan. Are gehiago: ezta generoaren

ba muan ere: gaur egun, zorionez, autorearen sona, edo sari eta bekaren eragina edota kanpoko bestelako gertakarien isla modu esanguratsuan sumatzen da liburuaren salmentan. Gustatu ala ez, irakurlego normalizatua dugun seinale da inpultsoz erostea, kanpainetan, eskaintza berezietan.

Sektorearen kezkatik haratago

Euskal liburuaren erosketa geratu bada, tiradak murriztu badira, iruditzen zait arazoa ez dela liburugintzaren sektorearena soilki. Bista altxatu behar da eta urrutirago begiratu. Nago, pesimistegi izan gabe ere, euskarak berak, euskal produktu askok ez dutela garai bateko (edo nahiago bada, oraintsu arteko) tirarik jendearen aldetik. Sektorez sektore joaten bagara, gehienetan edo beti ageri da joera hau, atzerakada ez bada gerakuntza. Batzuetan besteetan baino nabarmenago (edo ageriago, berdin ez dena). Euskalduntzearen alorrean gertatzen ari dena ez da gertakari bakana.

Begien aurrean gertatzen ari zaigunaren aurrean, begiak itxita gaudela ematen du. Euskalgintzak bere osoan ez du erreakzionatzen. Afektatuaren gain uzten da «krisiaren» kudeaketa, besteok libre bageunde bezala. Oraindik euforia saltzen ari gara eta beldur naiz enteratzen garenerako hutsak ez ote garen egongo, edo zuloz beteta, hau da, ez ote den beranduegi izango. Euskalgintzako solidaritate faltak kezkatzen nau. Arazoak sektorializatu egin ohi ditugu, baina sektorea bera ahula da, trinkotasun eskasekoa eta ez da gauza sentitzen erantzun globala emateko. Bien bitartean gainerako sektoreak lasai, beste aldera begira, arazoa beraiena ere ez bailitzan. Solidaritate falta nagusi dugun fase arriskutsu batean gaudelakoan nago.

Euskararen mundua, laburtuz esateko, dentsitatea ez dakit baina ingurunea behintzat bai, galtzen ari delakoan nago. Beroarekin izotz-mendiari gertatzen zaion gauza bera. Honen atzetik hipotesi edo galdera potoloagoak egon daitezke: euskara zertarako ikasi, baldin gero ikasteko eta lanerako behar ez bada? Geure etxean ere euskara baino «interesgarriagoa» bada ingelesa? Euskara zertarako erabili, baldin gaztelaniaz edo frantsesez osoki eta guztiz bizitxerik badago? Eta gainera: benetan uste al dugu euskara-


ren unibertsoaren aurka esan eta egi(te)n den guztiak ez duela inolako eraginik? Zer egi(te)n dugu politikoki diskurtso horri aurre egiteko? Isiltasuna ez da soluzio. Euskarra baztertzaille eta politikoki konnotatu gisa salatu izan denean, euskalgintzan zer egin dugu gure diskurtsoa gaurkotu eta zabaltzeko? Zer egiten da (dugu) euskararen prestigio soziala bermatzeko eta indartzeko?

XXI. mende honen hasieran euskararekiko jarrerak aldatzen ari direlakoan nago. Atxikimendua zegoen lekuan ausentzia dago orain. Sektore batzuk, sentiberenak edo aurreneko ilaran edo kalearen parean daudenak, hasi dira ausentzia horren ondorioak pairatzen, baina ezin da pentsatu arazoa sektoriala denik. Goizago edo berandua-go euskalgintzako sektore guztiak ukitu, jo edo astinduko gaitu honek, elkarte askok begiak ixtea erabaki badute ere. Aurretiazko medizina da soluzioa eta ez gero itzulera-rik gabeko bidean suhiltzailearena egitea.

Nobedadeak eta berrargitalpenak

Arestian aurkeztu dugun titulu kopurua hala nobedadez nola berrargitalpenez osatzen da. Ondoko grafikoan ikus daiteke urtea joan eta urtea etorri zein den kontzeptu bakoitzaren indarra urteko produkzioaren baitan.

Nobedadeak eta berrargitalpenak




Aurtengo ekoizpenean nobedadeen kopuruak gora egin du: 6,6 puntu igo da iazkoarekiko. Nahiz eta produkzioak oro har behera egin, nobedadeek gora egin dute, itzulitako liburuari esker egin ere.

Nobedade horien gorakada ez da izan editore handien erabakia. Aurreko urtean baino titulu berri gutxiago atera dute hauek. Lehen hamaika horietan aurrekoan baino titulu banaka batzuk gehiago atera dituzte Ibaizabal, Erein, Aizkorri eta Desclée De Brouwer argitaletxeek. Beste guztiak murriztu egin dute nobedadeen kopurua. Eta oro har hamaika horietan lehen edizioak 100 bat titulu galdu du. Jokaera berdintsua ikusten da erdi mailako editorial askotan ere. Garbi uzten du horrek titulu berri gehiago baldin badago, ekoizle berri gehiago agertu delako dela. Ekoizle berri hauetako asko, ordea, behin-behineko editore dira, hurrengo urtean bertan desagertu daitezkeanak.

Nobedadeek aurtengo %73 suposatzen dute.

Nobedadeak



Produkzioaren jaistea erabaki duena berrargitalpena izan da. Hamarkadaren barruan bigarren aldiz gertatzen da berrargitalpenaren jaitsiera. Esanguratsua izan daiteke oraingo datu hau, baldin eta gerora joera konfirmatzen bada, noski. Jaitsiera, dena den, azpimarratzeko modukoa da bere horretan ere: 19,6 puntu, ez da txantxetakoa.

%27an dago orain berrinprimaketa eta berredizioaren parte-hartzea. Iaz baino 6 puntu gutxiago, zenbaki absolututan 100 bat liburu gutxiago. Esan dezagun bidena-

bar tokitan gelditzen dela frantses edizioaren eredua, non berredizioa %57 baita. Bestelako zukua ateratzen diote frantsesek liburu bakoitzari. Inbidia ematen du. Espainiar edizioan, ostera, berredizioa %25ean dabil, ahula da, eta esan nahi du lautik hiru liburuk bizialdi bakarra eta (seguruenik) motza duela. Titulu ugari bai, baina aprobetxamendu eskasa.

Gaien arabera liburugintza sailkatzen dugunean ikusiko dugu zehatzago, baina aurrera genezake berredizioa ez dela ematen gai multzo guztietan modu orekatu berean. Berrargitalpenaren zatirik handiena irakaskuntza liburuan izaten da, %55,7. Eta honen ondorengo liburu mota, %27,3rekin, haur eta gazteentzako liburua da. Askoz urrutiago dator literatura, helduena, %13,7rekin. Honek esan nahi du bizi-itxaropena duen liburua hiru hauetan dagoela, eta, jakina, batez ere haur eta gazteei zuzenduta dagoen liburuan, testua izan, irakurgaia edo literatura izan. Bestelako liburu ia guztiak lehen edizioan bukatzen dute bere bizialdia.

Berrargitalpenak



Argitaraldien mailaketak liburuen onarpen sozialaren berri ematen du, neurri batean bederen. Lehen argitaraldian dauden liburuek oraindik frogatzeke daukate arrakasta soziala. Eta 22. edizioa izan duen liburuak bere froga guztiak pasatu ditu dagoeneko. Tartean daude gainerako guztiak.

Lehen argitaraldia.....	1.104 titulu
Bigarren argitaraldia.....	92
Hirugarren argitaraldia.....	77
Laugarren argitaraldia.....	53
Bosgarren argitaraldia.....	44
Seigarren argitaraldia.....	24
Zazpigarren argitaraldia.....	25
Zortzigarren argitaraldia.....	25
Bederatzigarren argitaraldia.....	27
Hamargarren argitaraldia.....	14
Hamaika argitaraldi edo gehiago.....	35
Hainbatgarren berrargitaraldia.....	45

2001ean 1.104 tituluk izan dute lehen argitaraldia. Beste guztiek, 384, bigarrena edo handiagoa. Titulu batzuk bide luzea ari dira egiten. 35 liburuk hamaika argitaraldi baino gehiago izan dute. XIX. mendeko katixima haietatik hona ez zen halakorik gertatu euskal liburugintzan.

2001. urteko liburu ekoizpenean atera den ediziorik altuenak 110. *Street-eko geltokia* du izena. Iñaki Zabaletaren liburuak hogeita bigarren edizioa izan du, Susarekin atera zituen hasierako biak erantsita, hogeita laugarrena. Hogeita batgarrena izan du Joan Mari Irigoienek *Babilonia* liburuak. Hemeretzigarren ediziora iritsi da itzulitako liburu bat, Chisholm-ek idatzi eta J.A. Mujikak itzulitako *Istanbul-en elkartuko gara*. Jon Arretxeren *Ostegunak* eta Joxean Ormazabalak *Pernando Amezketa* liburuak hemezortzigarren argitaraldian daude dagoeneko.



Arrakasta adierazten duen beste termometro bat bada, urte berean argitaraldi bat baino gehiago izatea, alegia. 2001. urtean edizio bat baino gehiago hamar tituluk izan dute. Hauetako batzuk aurrenekoetik bigarreneira igaro dira, eta beste batzuk goragoko mailan dabilta. Urte berean hiru argitaraldi izan dituztenak ere badira, lau: Jaxone Osororen *Korapiloak*, Julen Gabiriaren *Connemara gure bihotzetan*, Jon Arretxeren *Ostegunak* eta Unai Elorriagaren *SPrako tranbia*. Elorriagaren hiru argitaraldi hauek Espainiako Sari Nazionalaren aurretikoak dira eta oker ez banago 2002an beste lauzpabost izan ditu bere liburu sarituak. 2001. urtean liburu arrakastatsuenak, sei bat argitaraldirekin, Joanne Rowling-en *Harry Potter eta sorgin-harrida*, Iñaki Mendigurenek euskaratua.


Jatorrizko eta itzultitako liburuak

Jatorrizko eta itzultitako liburuen azterketatxo hau nobedadeen barruan egin ohi dugu. Hots, 2001ean lehen argitaraldia izan duten liburuetan zenbat diren euskaraz sortuak eta zenbat euskaratuak, hori da begiratu ohi duguna.

Esan dugu lehenago urteko ekoizpen osoan nobedadeen kopuruak gora egin duela, iazkoarekin alderatuta. Baina ez da iaz baino liburu gehiago sortu delako euskaraz, baizik eta aurreko urtean baino liburu gehiago itzuli delako euskarara, ondoko grafikoak ongi erakusten duenez.

Jatorrizko liburua eta itzulpena nobedadeetan





Jatorrizko liburua

Jatorrizko liburua, hau da, euskaraz sortua, mantendu egin da. Iazko jaitzialdia frenatzea lortu du. Hamarkadako eboluzioa ikusita ematen du 1999an egin zuen gorakada, hura dela salbuespena. Balio absolututan 754 dira jatorrizko titulu berriak, 1999koa kenduta, orain arteko altuena.

Itzulpena

Hamarkadan zehar hazkunde negatibo ugari izan ditu itzulpenak, baina ez aurten. Iazkoarekin alderatuta ia 20 puntu hazi da. Eta, hala ere, ez dago aurten punturik gorenean. Eboluzio orokorraren grafikoan ikus daiteke hamarkada honetako lehen urteetan nobedade gehiago itzuli ohi zirela.


Datu hauek guztiak beste modu batean ere azaldu litezke. Taula gisa hain zuzen ere. Grafikoan baino hobeto neurtzen da taulan nobedadeen sailean zein den jatorrizko liburuaren zein itzultitako liburuaren indarra, proportzioa.

<i>Urtea</i>	<i>Jatorrizkoa</i>	<i>Itzulpena</i>
1992	56,6	43,4
1993	56,4	43,6
1994	61,7	38,3
1995	63,3	36,7
1996	59,5	40,5
1997	66,2	33,8
1998	68,3	31,7
1999	73,9	26,1
2000	73,7	26,3
2001	69,4	30,6

2001. urtean igo egin bada ere, argi eta garbi ageri da hor itzulpenaren proportzioa orain baino handiagoa izan dela taularen hasierako urteetan. Ez dakit nik bi liburu moten arteko proportzio egokia zein den, oraingo hau ala besteren bat. Badakit jakin beste herri batzuetan pisu txikiagoa duela itzulitako liburuak, hori bai. Baina gure kulturak eta hizkuntzak dituzten baldintzak kontuan hartuz gero, ez zait iruditzen kezkatzekoa denik orain agetzen zaigun proportzio hau. Ez zait iruditzen sorkuntza krisirik dugunik.

Gaiak

Orain arteko lerroetan liburugintzaren kopuruak eta ezaugarri nagusiak aipatu ditugu, zenbat idatzi den, zen-



bat itzuli edo berrargitaratu den, besteak beste. Mamiira jo behar dugu orain, edukira, zertaz diharduten ikusi behar dugu.

Hasteko, argazki orokor bat emango dugu, non produkzio osoa gaietan banatuta agertzen den, gai multzo bakoitzean zenbat titulu kokatzen diren eta gai multzo bakoitzak produkzio osoan duen pisua zein den azaldu guran.

Gaien arabera

<i>Gai multzoa</i>	<i>Zenbaki absolutuak</i>	<i>%</i>
Hezkuntza. Irakaskuntza	441	29,6
Haur eta gazteentzako liburuak	402	27,-
Giza/gizarte zientziak	274	18,4
Helduen literatura	235	15,8
Zientzia. Teknika	60	4,-
Aisia liburuak	54	3,6
Erljioa. Teologia	18	1,2
Sailkatu gabe	4	0,3

Liburugintzaren gai egitura hau iraunkorra da bere balio nagusietan azken urteotan. Eta ez da aldatuko, eus-kalgintzaren baldintza objektiboak aldatu ezean. Egon-kortasun hau positibotzat jo daiteke errealitate eta kultur premia objektiboek egokitzen zaien neurrian. Eta, hala ere, ez da egokiena gizarte moderno normalizatu baten liburugintza izateko: sailen arteko oreka ez da mantentzen eta gai-sail batzuek trataera eskasegia daukate.

Iaztik hona izan diren mugimenduetan ikus daiteke bi gai multzo atera direla galtzaile: irakaskuntzako liburua eta helduen literaturako liburua. Irakaskuntzako materialetan bi urte segidan izan da jaitsialdia eta honek zalan-tzarik gabe zerikusi zuzena du liburu tipo honen merkatu baldintzatuarekin. Literaturaren kasuan urteetakoa da beheranzko joera, iazko gorakada aparte.


Gainerako gai-multzo guztiek egin dute gora, modu nabamenxeago edo apalxeagoan. Ez dira jauzi handiak, baina merezi dute seinalatzea haur eta gazteentzako eta giza/gizarte zientzietako liburuek izan duten gorakada.

Aurten orekatuxeagoa ageri da taula, baina ez da nahitaez hori seinale ona edo hobea, ez baita hori gertatu liburu multzo apalenak modu esanguratsuan indartu direlako, baizik eta beste batzuek indarra galdu dutelako.

Ohar orokor hauen ondoren, gai multzo bakoitza zehatzago ikusiko dugu bere gorabeheretan.

Hezkuntza eta irakaskuntza: 441 titulu

Berau da gai multzorik hornituena, euskalgintzan irakaskuntzak duen garrantziaren seinale. Ez dakit esan dai-tekeen indarra galduz doanik, baina iaz eta aurten titulu zenbait galdu egin du: iaz ia 8 puntu galdu zituen eta aurten 13 pasatxo. Ea 2002an zein den konportamendua. Igo



gingo da seguruenik, zeren eta 2001. urtea arlo honetan trantsiziokoa izan baitaiteke. Izan ere, batetik, behar batzuk jada beteta zeuden; eta bestetik, material prestakuntzan murgilduta egon dira argialetxe batzuk, 2002ko berrikuntza pedagogikoari begira. Deskuidoz 2002. urtean alerik galduko balu, hiru urteko zikloez mintzatzeko moduan geundeke: 1994-95-96 urteetan joera negatiboa; 1997-98-99 urteetan joera positiboa; eta hurrengo urteetan berriz negatiboa. Baina utz dezagun kontu hau gerorako.

Irakaskuntza, urtez urteko indizea

Iaztik hona 68 titulu galdu ditu irakaskuntzako liburuak, eta 441 titulutan gelditu da. Ez dago kopuru hau

1992tik honako batez bestekotik urruti, 436 baita batez besteko hori. Urteko produkzioaren baitan duen indarra ere apaldu egin da %29,6ra, iazkoa %33,5 zenean.

Aurreneko begi-kolpean zifra hauek krisi baten atariko eta guzti irudi dezakete, baina ez da komeni azkarregi ondorioetara igarotzea, bi ohar hauek kontuan eduki gabe behintzat: zuzen-zuzen sail honetantxe intzidentzia duen Zubia editorialeko berrargitalpenak ezin izan ditugu jaso, Santillanatik ezin izan zutelako informazioa jaso. Hori batetik, eta bestetik: Tarttalo editorialeko haur eta gazteen-tzako liburuak, ISBNren irizpideak jarraituz, bere sailean kokatu ditut aurten, eta ez aurreko urteetan bezala horietako batzuk haur hezkuntzan. Berriro diot: bi aldaketa hauek izan daitezke irakaskuntzako eta haur eta gazteen-tzako liburuen artean dauden gora eta behera gehienentxoenen eragile eta kausa. Hortaz, egiazko jaitsiera ez da horren handia, iazkoaren parekoa baizik.

Itzul gaitezen aurtengo zifretara, ohar bikoitz hori kontuan hartuta betiere.

Gai multzo honetan, irakaskuntzako liburuan, berrargitalpenaren pisua handia da: erdia pasatxo da berredizioa, hain justu %50,8. Lehen Hezkuntzan egin direnek %46,2 suposatzen dute eta DBHn egindakoeak %37.


Jaitsiera hain zuzen berrargitalpenetan egon da eta ez nobedadeetan, hauetan mantendu egin baita produkzioa.

Irakaskuntzako mailetan barrena honela banatzen da produkzioa:

Didaktika. Pedagogia. Orientabideak.....	11,1
Haur eskola. Oinarrizko irakaskuntza.....	10,6
Lehen Hezkuntza.....	36,7
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.....	23,8
Euskararen irakaskuntza.....	15,2
Besterik.....	2,6
	<hr/>
	% 100

Lehen eta Bigarren Hezkuntzan pilatzen dira liburu gehienak: %60,5. Euskararen irakaskuntzak ere badu indarra, hor sailkatu baititugu HABEko liburuak.

Gai multzo honetan %18,4 da itzulpenaren eragina, baina hori baino gehiago ere badela esan dezakegu. Badi-ra, izan ere, erdal jatorria aitortu gabe edo kamuflaturik publikatzen diren liburuak.



Haur eta gazteentzako liburuak: 402 titulu


Sail honetan kokatu ohi dira, ISBNko irizpideetan, haur eta gazteentzako literatura ezeze adin horretakoentzat egin ohi den gainerako material guztia, ikasmaterial-gintza salbu.

Gai multzo honetako batez bestekoa, 1992tik hona, 312 da. Gaur 402. Iaztik hona gora egin du, 8 puntu pasa. Nobedadeei zor zaie gorakada, eta hauen barruan itzulitako liburuei. Liburugintzaren barruan, orain, %27 suposatzen du liburu tipu honek.

Haur eta gazteentzako liburua

Sailaren barruan berrargitalpenak indar dezentea du: %27,3. Den liburu tipoa eta daukan merkaturia kontuan izanda, gutxitxo iruditzen zait. Etengabeko nobedadez elikatu behar da saila, antza denez, eta horrek esan nahi du liburu gehiegi erretzen dela azkar edo azkarregi. Liburu hauetako asko eta asko, gehienak, erdal jatorrizkoak direnean, zer esan nahi du argitaletxeen politika honek, itzuli beharreko tituluen hautapena ez dela zorrotz egiten, edo esan nahi du erdal erreferentzietara lerratua dagoela guztiz sail hau?

Gertatzez, erdal jatorrizko iturrietatik bizi da gehien



liburu mota hau: euskal jatorrizko nobedadeak %32,2 dira eta gainerako %67,8 itzuli egin da. Iaz orekatuagoa zen proportzioa.

Giza eta gizarte zientziak: 274 titulu

Aurtengo kopurua azken hamarkadako batez bestekotik gora dabil: 274 *versus* 226.

Aurreko urtean, hau da, 2000.ean, bestalde, 20 puntuko jaitsiera izan zuen, eta aurrean, berriz, hazi egin da, maila apalagoan izan bada ere: 7 puntuko hazkundera izan du.

Giza eta gizarte zientzietako liburuak

Igoera, apala izanik ere, positiboa da nahiz urtua gelditzen den hain eremu zabalean. Zabala eta mugagabea baita, izan ere, giza eta gizarte zientzien gai multzoa. Barnean daude filosofia, psikologia, soziologia, politika, administrazioa eta zuzenbidea, geografia eta historia, etnologia, linguistika eta filologia, edertia. Jakintzaren unibertsoa.


Sailaren barruan indar handiena historia liburuak du (%24,4), gero linguistikak edo filologiak (%12), eta hirugarren lekuan edertiak (%9,8).

Filosofia eta psikologia.....	3,3
Soziologia eta estatistika.....	9,1
Zientzia politikoak eta ekonomikoak.....	5,8
Zuzenbidea. Administrazioa.....	6,5

Linguistika eta filologia.....	12,-
Geografia eta bidaiak.....	4,7
Historia eta biografiak.....	24,4
Etnologia.....	5,1
Edertia.....	9,8
Besterik.....	19,3
	<hr/>
	%100

Sail honetan oso titulu gutxi lortzen dute arrakasta eta sona iraunkorrik. Urtean zehar %3 bakarrik berrinprimatu da.

Liburu autoktonoa dei genezakeena da nagusi lehen argitaraldian. Izan ere, euskal jatorrizko liburuak da gehienak: %84,2. Baina, egia esateko, hemen ere bada aitortu



gabeko itzulpenik, seguru. Usaimenak esaten digu, esaterako, administrazio publikoak argitara ematen dituen liburu asko, gehienak ez esatearren, erdaraz pentsatu eta idatzi eta elebitan agertzen direla. Baina liburuan bertan ez da inon agertzen itzulpena denik.

Helduen literatura: 235 titulu

Azken hamarkadako batez bestekotik (208) gora gaudela titulutan: 235. Baina iaiztik hona jaitsiera izan du literaturako liburuak, 8 puntu. Zergatik ote, iaiz ustekabeko igoera izan zuelako?

Literatura, urtez urteko indizea

Liburugintzaren baitan literaturak duen pisua %16 eskas da. Ez da pisu handia. Txikiegia ematen du, Europa barneko beste herriekin konparatuta. Catalunyan, hurbileko erreferentzia bat ematearren, bestalde, gure maila berean dabilta.

Nobedadeek hartzen dute merkatuaren zatirik handiena, eta agian handiegia: %76,6, eta berredizioak %23,4. Merkatua zabala balitz indar gehiago behar luke berragitalpenak. Merkatu txiki bat etengabe produktu berriz elikatzen ari den errotaren itxura hartzen zaio literaturako editorialgintzari. Erosle eta irakurle berriez elikatu beharrean titulu berriz elikatzen bide da literatur merkatua.

Nobedadeetan jatorrizko liburuak du nagusigo osoa: %81,6. Olerkian %25 itzuli da eta narratiban %20. Datu hauek ikusita zertan esanik ez da titulu gutxi, gutxiegi, itzultzen dela helduen literaturaren alorrean. Zergatik da? Merkatuan tirarik ez duelako itzultitakoak? Autore eskubide eta itzultzaile eskubide guztiekin garesti ateratzen delako itzultitako liburuaren edizioa? Itzulpen politika jatorrik ez dagoelako? Ingurukoekin ezin duelako lehiatu, esate baterako, garaiz merkaturatzen? Arazoak arazo, arrazoiak arrazoi, kontua da literatura gutxi itzultzen dela. Baina ez da erraza bakoitzari berea eman eta bide seguru bat markatzea, gurpil zoro zurrunbilotsu hau hautsiz.

Eleberria. Ipuina.....	56,1
Olerkia.....	17,-
Antzerkia.....	7,6
Herri-literatura. Bertsoa.....	5,1
Saioa. Poligrafiak.....	8,9
Generoak nahasian.....	1,2
Besterik.....	4,1

% 100

Generoen arteko banaketan narratiba ageri da nagusi, beti bezala, produkzioaren erdia eta gehiagorekin. Bigarren lekuan datorren olerkiak bai iaz eta bai aurrean hobetu egin du bere postua, baina baliteke datozen urtetan atzerakada izatea, hain zuzen ere Susa argitaletxeak XX. mendeko poesia kaiaren argitaraketa amaitzen duenean.

Gainerakoak

Trinkotasun eta dentsitate txikikoak dira euskal liburugintzako gainerako gai multzoak. Urteroko moduan hiru aipatuko ditugu hemen arin-arin: zientzia, aisia liburua eta erlijiozkoa. Hiruen artean urteko ekoizpenaren %8,8 egiten dute.

Zientzia eta Teknika

Natur zientziak.....	18,3
Ingeniaritza. Teknologia. Industriak.....	26,6
Medikuntza.....	21,6
Ekologia. Ingurumena. Agronomia.....	25,-
Besterik.....	8,5

% 100

Urtea joan eta urtea etorri, zientzia eta teknika alorrean produkzioa ez da ez gehitzen eta ez gutxitzen. Zehatzago esanda, ez gora eta ez behera ez da mugitzen alor horretako liburua. Liburu formatuan barik bestelako euskarrietan hobesten da orain zientziaren eta teknikaren informazio dibulgatzailea, hala nola, internet, aldizkaria, irratia, telebista. Alor honetan, ikerketarentzat geldituko al da liburuaren euskarria?

Ia-ia nobedadea besterik ez dago sail honetan, eta nobedadeen barruan euskal jatorrizko liburua.

Aisia liburuak

Gastronomia.....	3,7
Musika. Antzertia.....	29,6
Argazkigintza. Zinema. Irratia. Telebista....	24,-
Jostaldiak. Jokoak. Kiroiak. Mendia.....	37,-
Besterik.....	5,6

% 100

Ez dakit erruaren izena diglosia den ala beste zerbait. Berdin dio. Kuestioa da ezen, beste alor askotan bezala hemen, euskaraz ez dela kontsumitzen. 54 titulu bakarrik atera dira gai multzo honetan. Kirolean, mendian, musikan, zineman, gastronomian eta beste hainbat gaitan erdararako joera guztizkoa dela ematen du.

Erlijioa. Teologia

Teologia morala eta praktikoa.....	33,3
Teologia pastorala.....	22,2
Eliza kristaua. Liturgia. Misioak.....	38,8
Besterik.....	5,6

% 100

Azken tokian dator multzo hau produkzioaren mailaketan, 20 bat libururekin. Hemen jakin badakigu kontsumoa handiagoa dela. Eliz barneko kontsumoa da gehiena, eta hor liburu baina gehiago liburuxka eta antzeko materialak erabili ohi dira. Kristau komunitatearen guneetatik landa presentzia txikia du erlijiozko liburuak gaurko euskal gizartean. ¶

Oharrak

2001eko LIBURUAK: GAI SAILKAPENA

Sailak	Zenb. abs.	%
0. OROTARIKOAK	450	30,2
— Zientzia eta kulturaren oinarri orokorrak. Bibliografia. Katalogoak. Bibliotekonomia. Entziklopediak. Kazetaritza. Poligrafiak. Museoak	48	3,2
— Haurrentzako argitalpenak	402	27,-
1. FILOSOFIA	9	0,6
— Metafisika. Ontologia. Estetika. Filosofia sistemak. Psikologia. Logika. Etika	9	0,6
2. ERLIJOA. TEOLOGIA	18	1,2
— Berezko teologia. Biblia. Kristologia. Mariologia. Teologia moralak. Liturgia. Pastoral teologia. Eliza. Kristauez besteko erlijioak	18	1,2
3. GIZARTE ZIENTZIAK	517	34,7
— Soziologia. Estatistika. Demografia. Politika. Ekonomia. Zuzenbidea. Herri administrazioak. Gizarte laguntza. Etnologia	76	5,1
— Hezkuntza. Irakaskuntza. Heziketa. Pedagogia	441	29,6
5. ZIENTZIA HUTSAK. ZIENTZIA ZEHATZAK ETA NATURALAK	16	1,1
— Matematikak. Astronomia. Fisika. Kimika. Geologia. Metereologia. Paleontologia. Biologia. Botanika. Zoologia	16	1,1
6. ZIENTZIA APLIKATUAK. MEDIKUNTZA. TEKNIKA	44	3,-
— Medikuntza. Ingeniaritza. Teknika. Nekazaritza. Basogintza. Zooteknia. Etxeko ekonomia. Industria. Zenbait industria eta lanbide. Eraikuntza. Sukaldaritza	44	3,-
7. EDERTIA. JOLASAK. KIROLAK	77	5,2
— Edertia. Estetika. Hirigintza. Arkitektura. Eskultura. Marrazketa. Margogintza. Argazkigintza. Musika	57	3,8
— Jostaldiak. Jolas eta jokoak. Kirolak	20	1,4
8. FILOLOGIA. LITERATURA	253	17,-
— Hizkuntzalaritza. Filologia	18	1,2
— Literatura. Literatur historia eta kritika. Literatur generoak	235	15,8
9. GEOGRAFIA. BIOGRAFIA. KONDAIRA	80	5,4
— Geografia	13	0,9
— Biografiak	41	2,8
— Kondaيرا	26	1,7
SAILKATU GABE	24	1,6
GUZTIRA	1.488	100

1. Liburuen fitxa bibliografikoan ikur hauek agertzen dira:
- Tituluaren ostean eta parentesi artean:

i = itzulpena

b = berrargitalpena

e = elebikoa

• Izenen artean:

/ = itzultzailea

// = ilustratzailea (marrazkilaria zein argazkilaria)

• Izenaren ondoren:

* = prestatzailea, egokitzailea, paratzailea, biltzailea

** = zuzendaria, promotorea, antolatzailea, arduraduna, koordinatzailea

*** = euskalki aldatzailea

• [] artean sartu dugun informazioa liburuak berak dakarrenetik aparte lortua da.

2. Eskerrak emateko orduan fitxa bibliografikoak osatu ahal izateko laguntza eskaini didaten guztiak eskertu nahi ditut. Hasteko, liburuak eskura utzi dizkidaten argitaletxeak: Elkarlanean, Ttarttalo, Ibaizabal, Erein, Alberdania, Gaiak, UEU, Zubia, Pamiela, Giltza, Susa, Aizkorri, EFA, Euskaltzaindia, Baigorri, Getxoko Kultur Etxea, Gipuzkoako Foru Aldundia, Kutxa eta beste zenbait, horien artean udaletxe batzuk. Fitxa bibliografikoak bidali dizkidaten editorialak ere gogotik eskertu nahi ditut. Ia denak dira, baina ez guzti-guztiak, harritzekoa bada ere. Ez dakit nik zenbait editorialen profesionaltasuna zer-nolakoa den, fitxak bidaltzeko ere gauza ez direnean.

Eskerron merezia zor diet Koldo Mitxelena Kulturuneko Agurtzane Juanena eta Donostiako Udal Liburutegiko Arantxa Urkari, informazio bibliografiko eskergaitza eskuratzen baitidate.

Eta zertan esanik ez, nire esker berezi-bereziak Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentuari luzatu nahi dizkiot, hasieran bezala bukaeran, lan hau burutzeko eman didan laguntza ekonomikoagatik.

- %100 basque. BORDA, Itxaro. Susa. Zarautz. 21,5 x 13 cm. 225 or.
- 0-3 haurren hezkuntza eskubideen aldeko mahaia: jardunaldiak. Donostiako Irakasle Eskola, 2001-10-06. (e). COORDINADORA DE ESCUELAS INFANTILES DE GIPUZKOA. s.n. s.l. 24 cm. 44 or.
110. Street-eko geltokia. (b). ZABALETA URKIOLA, Iñaki. Elkarlanean. Donostia. 21 x 12,5 cm. 152 or.
- 1280 arima. (b/i). THOMPSON, James Myers/Olarra, Xabier. Elkarlanean. Donostia. 19 x 12 cm. 260 or.
13. Haur Literatur Lehiaketa 2000 / Certamen de Literatura Infantil en Euskara (13º. 2000 Pamplona). ASKOREN ARTEAN. Iruñeko Udala. Iruñea. 29 x 24 cm. 52 or.
- 15 Komiki Lehiaketa / 15 Concurso de Cómic Noble Villa de Portugaete. (e). ASKOREN ARTEAN. Portugaleteko Udala. Portugaete. 30 cm. 37 or.
- 1554ko sutea: hondamendiaren ondorioak Durangoko gizartean eta ekonomian / El incendio de 1554: consecuencias de una catástrofe en la sociedad y economía duranguesa. AGIRRE GARCIA, Jaione. Arte eta Historia Museoa. Durango. 21 cm. 89 or.
- 1937ko martxoaren 31n Durangoren aurka egindako aire-bonbardaketari buruzko azterlana / Estudio sobre el bombardeo aéreo realizado contra la Villa de Durango el 31 de marzo de 1937. IRAZABAL AGIRRE, Jon. Gerediaga Elkarte. Abadiño. 24 x 17 cm. 307 or.
- 1997-99 bitarteko istripu-tasaren deskribapena eta istripuak kontzentratzen diren tarteak / Descripción de la accidentalidad 1997-99 y tramos de concentración de accidentes. (e). EUSTAT. Euskal Estatistika-Erakundea. Gasteiz. 25,5 x 21 cm. 71 or.
- 1999ko abuztuaren 11ko eguzki-eklipse osoa / Eclipse total de sol, 11 de agosto de 1999. (e). CASTRILLO, Alberto eta beste/Teus, Jon**//Alcalá, Ander eta beste. Aranzadi Zientzi Elkarte. Donostia. 29 x 21 cm. 100 or.
Itzul gaitzen ordea New Yorkera, ez dut haria galdu nahi eta. Bilboko Guggenheimen zuzendari Juan Ignacio Vidartek idatzi zuen Jose Luis Zumeta usurbildar pintoreak Chelsea egindako lehen erakusketaren katalogoaren sarrra. Niri gustatu egiten zaizkit horrelako konbinazioak, eta lankidetzak, itxura batean ura eta olioia ematen baitute Zumeta eta Vidartek, baina itxura, itxura besterik ez da, eta haratago begiratzen ikasi beharra dago, egunero. Zumetaren obra New Yorken lehen aldiz, 2002ko amaierarekin batera, Haim Chanin galerian, eta zoritxarrez bertan izan ez banintz ere, bertara bildutakoek kontaktzen dute haritu egin zituela newyorktarrak Zumetaren lanak, ez zutela ezagutzen, eta bide txiki bat zabaldu dela Europaz haratago, neurri handi batean artearen hiriburu ere baden New Yorken. Merezitako bidaia, beraz, telebistan albistea ikusten ari nintzen bitartean, hemen Euskal Herrian bi egunkarik Zumetaren erreprodukzio bat zabaldu zutela etoni zitzaidan burura, eta berehala eraman behar nuela gainera markoa jartzera, eta hortik pentsatzen abiatuta, ez galdetu nola, Durangoko azoka ere ganean zela hasi nintzen pentsatzen (azararen 10 inguruan inauguratuko zuten Zumetaren erakusketa New Yorken, gutxi gorabehera).

Dudarik gabe, esan nion nire buruari, Durangoko Azoka Euskal Herriko panorama kulturalaren ardatz nagusietako bat da. Sortze lan asko eta asko argitaratzen dira azokaren bezperan, jakinik gainera berehala datozela Eguberriak, eta saltzeko aukerak ezin direla alferrik galdu. Eta eguna heldu zenean, zinez, erabat harritu ninduen Ibarretxe Lehendakaria bertan ikusteak. Urteak dira ba, Durangon azoka egiten denetik —37 zehatz esateko—, eta orain arte ez du Ajuria Eneko maizterrak bide hori egiteko betarik izan. Ez da gutxi aurten egindako jestua.

Baina Durangok badu hala ere aspaldian bizkar gainetik kendu ezinik dabilen zama ere. Herria bera ez dago prestatuta jendetza handiak hartzeko, batetik, eta azokak berak, berriz, ordu puntan Tokioko metroa dirudi. Nola hurbildu *stand* jakin batera? Nola geratu bertan pare bat

minutuz halako liburu edo ez dakit nongo diskoari begira? Zer esanik ez, gainera, euria egiten badu. Logistika arazoak, Gerediagakoek egoitza berriari esker konpondu nahi dituzten logistika arazoak, zama astuna dira azokarentzat. Baina ez bakarrak.

Kalean esaten diren hainbat ideia idatziz jartzea politikoki «inkorrektoa» da Euskal Herrian, eta beharbada baita arriskutsua ere, baina aurren, aspaldiko partez, komunikabideei esker, nolabaiteko sakontasuna nabaritu diot Durangoko Azokari buruzko debateari (batez ere *Euskal-dunon Egunkaria*-ri esker jarraitu ahal izan dugun debateari), eta nabaritu diot bereziki euskal kulturaren mundua beharbada «korrekzio» politiko horretatik ihes egiten hasia dela dagoeneko. Badago bidea, nolana ere.

Helmuga: New York

Baina ez nadin despistatu, New York alde batera utziz. Nik ez dakit Carlos Catalan Parisen Concorda hartuz joaten den bertara, edo faxa eta posta elektronikoak nahikoak izaten dituen New Yorkekin harremanetan izateko, baina hara begira da Catalan ere. Catalan eta Oteiza. Eta beste batzuk ere bai, Juanito Huarte esate baterako, edo Jose Ramon Corpas.

Paris aipatu dut, eta Durangokoarekin zerikusirik ez duen beste azoka bati buruz hitz egiteko aukera ematen dit horrek: Expolangues izenekoa. Aurren lehenengo aldiz, euskarak titulu berria du: *Langue de France*. Ez noski «la langue de France» —hori argi asko esaten du Konstituzioak frantsesa dela— baina bai «une langue de France». Eta Frantziako errepublikaren lurraldeetan mintzatzen diren beste hizkuntza batzuekin batera jarri dute, Frantziako Gobernua areen eskutik, nolabaiteko exotismoa eta folklorea lotuz, Europa eta Ameriketako uharte konkistatuetako hizkuntzak nahastuz... Bost axola! *Langues de France*.

Euskararen presentzia hori baino zabalagoa da ordea Parisen, eta Eusko Jaurlaritzak ere badu bere *stand*-a. Azkarate sailburua bertan izan da, ondoren urtero egin ohi

дутен Euskal Etxeari bisita eginez (maltzurkeria hutsa da hau: eta gainera, iaz toki berean aurkeztutako Hezinet programa informatiko berbera aurkeztuz, protokoloak protokolo). Baina, eta hau beste maltzurkeria bat da, ez dut lortu oraindik jakitea zenbat metrotako *stand*-a jarri duen Eusko Jaurlaritzak Parisen, eta gustatuko litzaidake jakitea gobernu horrek berak Madrilen FITUR turismo azokan jarritakoaren parekoa den, handiagoa edo behar-bada txikiagoa. Lakuaren kasuan zalantza dena, ordea, ebidentzia da Nafarroako Gobernuaren kasuan. Beste behin ere, Expolanguesen ez da agertu ere egin Nafarroako Gobernu, euskararen kontra ekindako politikari tinko eutsiz, eta eroso gainera, inork ez baitio konturik eskatu (ez dakit ba, sikiera Parlamentuan galdera xixtrin bat, Sanzi ez bada ere Laguna kultura kontseilariari). Baina FITUR horretara bai, horra joan da Nafarroako Gobemua, turistak erakarri nahian. Ahalik eta gehien erakartzea opa diet, ez diru kontuengatik bakarrik. Etortzen diren asko eta asko konturatuko direlako Gobernuak bere foiletotan kontatzen duena ez dela egia oso, eta horren guztia- ren atzean, han eta hemen, euskara eta Euskal Herria agertzen direla. FITURen bertan, Nafarroako *stand*-ean, promozio burua euskalduna den bezala.

Azkenean New York

Turismoaren helmuga nagusi izanik, irits gaitezen behingoz New Yorkera. Iazko urte amaieran Zumeta bezala, 2003 honetan Jorge Oteiza (Oteitza sinatzen du berak) Marlborough galerian izatekoa da (ez bera, bere obrak baizik). Altzuzako fundazioarekin hainbeste gorabehera izan ondoren (digresioa: erabat harrituta nauka Saenz de Oizaren alabaren jarrerak Oteiza Fundazioaren patronatua, Oteizak berak eta Saenz de Oiza arkitektoak berak elkarrenganako zuten miresmena kontuan hartuz), fundazio horrek berak jarri nahi dizkio orain oztopoak New Yorken bere obra erakusteko, eta oztopo horiek buruhauste bihurtzen ari zaizkio Carlos Catalan Oteizaren ordezka-

riari, Estatu Batuetan korapilo legalak ez baitzaizkie bate-re gustatzen. Hitz batean esateko, Fundazioak dio New Yorkera eraman nahi diren lanak bereak direla, eta Oteizak berak dio ezetz, bere-bereak dituela, eta nahi duena egin dezakeela obra horiekin.

Eta honetan murgilduta genbiltzan, Oteiza bera neumoniak jota Gipuzkoako poliklinikara eraman dutela jakin dugunean. Iaz Iruñean egon zen egun luzetan, Opu-sen klinikan, beste neumonia bat sendatu zioten arte. Makalduta dago itxuraz Orioko artista osasunez. Jenioz ordea, seguru nago ezetz. Eutsiko ote dio hau argitaratu arte. Eutsiko ez balio ere, ordea, bere lanak gu guztiok baino luzaragoan eutsiko dio. *Quosque tandem?*¶

Literaturgintzaren 2002ko uztaren inguruan

Abenduan burutu zen Durangoko Azokak beste behin utzi zuen agerian 2002 urteak emandako uzta egiatan opara izan zela, baina oraingoan, ordea, ez da aurreko urtean bezainbesteko artikulua eta iritzi triumfalistikarik plazaratu, ez 2001 urtearen amaieran plazaratu beste, behinik behin. Uzta ona izanik ere, balantzea apalagoa izan da. Liburugintza helduarora heltzen ari den seinale.

Heldutasuna nabaritzen da, esaterako, galdera aristotelikoak egiteari («nor naiz ni») utzi eta, konplexurik gabe, eraikin berria diseinatzeari ekin baitio. Garai batean leporatu zitzaion Durangori erakusleihu antzua eta merkatu hutsa baino ez izatea, eta liburugintzak urtean zehar pairatzen duen errealitate gordina estaltzen laguntzea. Egun, ordea, inork ez du kolokan jartzen azoka urtero antolatzearen beharra. Duen meritua ezagutzen zaio, bere bertute handiena ez dela idazleak promozionatu edo liburugintzaren egoeraren ispilu fidela izatea, baizik eta merkatua potentziatu, argitaletxeei irabazi zuzenak eman eta erosleak bereganatzea, horiek irakurle bihurtuko diren itxaropenaz.

Norbaitzuek pentsatu nahi lukete/genuke azokaren xedea sortzailea eta hartzailea kontaktuan jartzea dela, eta oraindik daukan kutsu erromantikoa (adiskideen urtean behingo topagune ezinbestekoa izatea) eutsi nahi izaten diote/diogu, baina, egiatan, azokaren helburu behinena produktua eta kontsumitzailea kontaktuan jartzea da (eta ez sortzailea eta hartzailea).

Heldutasunaren bidean zenbait pauso gehiago eman dira dagoeneko, eta, honezkero, normalagotzat jotzen dugu liburu izarrik ez egotea eta begirada guztiak idazle bakar batzuegan ez zentratzea. Literatur generoak ugalduz doazen bezalaxe (narratiba, poesia, saiakera, artikulua bildumak, antzerkia, itzulpena, komikiak, nobela beltza, haur literatura, biografiak, hitz jokoak, hiztegiak, bertso liburuak...) ohikoa jotzen dugu literatur produktu motak

ere ugaltzea. Liburua ez da, dagoeneko, literaturgintzaren formatu bakarra. Aldizkariak, fanzineak, CD eta CD-ROMa, DVDA, formatu elektronikoan sortu eta sarearen bidez hedaturiko informazio-dokumentazio literarioak... Erlatibizatzen ikasi dugula ematen du. Ezin dugu ekoizten den guztia ezagutu, eta badakigu, jakin, betiko lau izen handitara joz gero, lan interesgarri asko galduko dugula. Eloorriagarekin gertatutakoa lekuko.

Literaturgintza normalduz doa, bai, eta pozgarria da. Hala ere militantismo dosi handiak behar izaten dira oraindik. Galdetu bestela *txiringittoa* itokinen pean eta azpiegitura eskasekin (azokan bertan eta bestela ere, enpresek ezin baitiete hotel eta garraio gastu handiei aurre egin) lauzpabost egunez hamaika orduz saltzaile aritu behar izan ziren ekoizle-editore-sortzaile gizajoei. Edo eurijasaren pean eta lokatz artean Durango kolapsatu batean aparkatu nahian aritu ziren balizko irakurleei. Militantismo ezean akabo Durango.

Euskararako itzulpengintza, esne bitsetan

Itzulpengintza urrezko aroa bizitzen ari dela ematen du. Poztekoa da. Orain hogeitabat urte Katalunian bizi izandako garai gozoa guk bizi dugu orain. Alde batetik, Pentsamenduaren Klasikoak euskaratzeko egin den esfortzu handiak fruituak eman ditu dagoeneko, eta 70 titulu sortu ditu, filosofian, ekonomian eta zientzian mendebaldeak azken mendeetan sortu duen pentsamendua euskaraz eskainiz. Bi liburukitan bildurik dauden hitzaurre guztiak irakurtzea baino ez dago lanaren mamia eta kalitatea haztatzeke.

Beste hizkuntzetatik euskarara itzulitako lanen artean, Literatura Unibertsaleko 100 tituluak aipatu behar dira. Lan mardula eta kalitate handiz egina. Proiektuaren bigarren fasea martxan dago honezkero, eta 50 titulu gehiago itzultzeko konpromisoa sinaturik dago.

Itzulpenok profesionaltasun handiz eta mimo handiagoz eginda daude, eta halaxe lortuz doa euskal irakurleak itzulpenekiko zuen mesfidantza gero eta txikiagoa izatea.

Itzultzaileek haizea alde dute, eta Harry Potter fenomenoa adibide ona dugu. Gure belaunaldikook Emilio Sargari, Enyd Blyton, Tintin eta Asterix gaztelaniaz irakurri (antsiaz irentsi) genituen, jatorrizko testua ez zirenik burutik pasatu gabe. Geroago, Faulkner edo Kafka, Camus edo Woolf irakurri genituenean ez genuen pentsatu itzulpenak zirenik. Gaztelania hura «originala» zelakoan irakurtzen genituen Europa eta Iparramerikako literatura lan guztiak.

Gure gazteenek J.K. Rowling edo Tolkien-en liburuak euskaraz irakurtzen dituzte eta ez dute itzulpenak direlako sentsaziorik. Irakurle hauek normaltasunez kontsumituko dute munduko literatura euskaraz. Proiektuok, beraz, inbertsio garrantzitsuak dira.

Euskaratiko itzulpengintza, hasi berritan

Alderantzizko prozesuan, hau da, euskaratik beste hizkuntzetarako itzulpenaren alorrean, University of Nevada-Renon kokaturik dagoen Basque Studies Center-ek eta EHU-UPVk sinatu berri duten akordioa dugu. Azaldu dutenaren arabera, urtero bi nobela gutxienez eta beste zenbait lan itzuliko dira euskaratik ingelesera, euskal literaturari mundu anglosaxoniarrerako leihoa zabalduz. Ongi.

Euskaratik beste hizkuntzetara itzultzean, ordea, alderantzizkoan ez bezala, zaila da asmatzea zein izan behar den tituluak aukeratzeko irizpidea. Munduko lanak gurera erakartzerakoan hainbat lehentasun egon daitezke, zein titulu edo egile itzuli lehenago edo beranduago, baina adostasun handia egon ohi da maisulanen zerrenda osatzean, euskaraz eduki beharreko tituluak zein diren alegia.

Beste kontua da erabakitzea zeintzuk izan behar diren hemendik kanpora atera behar diren lan eta egileak. Azpimarra non ipini, zeini eman lehentasuna, norainoko arriskua bereganatu, zein da kanpoan eman nahi den irudia.

Orain arte egin izan diren saio apurretan bi gauza nabarmendu dira. Bata da atera den apurra norberak egindako kontaktuei esker izan dela batik bat. Sari batek atek zabal ditzake (izugarri zabaldu ere), eta egile baten edo biren

kasuan horrela izan da. Baina beste kasu guztietan (kasu gutxi halere) editorearen lanari esker edo kontaktu pertsonalei esker lortu da titulu bat edo beste kanpoan ipintzea.

Nabarmen gelditu den bigarren kontua da proiektu kolektiboak itzuli direnean antologoaren esku gelditu dela erabakimena. Irizpide pertsonalak eta arbitrarioak izan dira, norberaren kerien arabekoak. Oroahalduna bailitzan, itzulpena bultzatu duenak erabakitzen du nor sartu eta nor ez, nork merezi duen kanpoan ezagutua izatea eta nork ez duen maila ematen. Inon idatzirik ez dagoen irizpideen arabera eman zaie idazle batzuei kanporako pasaporteak. Eta sami askotan egileek sentitu dute (loteriaren danbolinean sartuta baileuden) beren zenbakia daraman bolatxoak inoiz ez dela aterako, arrazoi estraliterarioengatik kasu askotan.

Aipatu dugun UPV-EHU/Renoren kasuan beldurra ematen du ikusteak Atxaga izan dela itzulia izateko aipatu den lehen egilea. Itzulpen subentzionatua gutxien behar duen idazlea alegia. Bide komertziala egina duen idazle baka renetarikoa. Proiektuaren arduradunei arriskurako joera gutxi ikusten zaie, batetik, eta, bestetik, inon ez da azaldu nolako irizpideak erabili diren diru publikoaz ordainduko den proiektua gauzatzeko unean. Pasaporte-emailearen esku gelditzen omen dira.

Edonola dela ere, itzulpengintza gora doan balioa da (globalizazioaren eta nork bereari eutsi nahiaren ondorioa), eta ez da kasualitate (kasualitate gutxi dago) Palman 2002an burutu den Galeuzcaren gaia itzulpengintza izan izana. Hurrengo edizio gehiagotan ere landu behar izango da gaia, oraindik zeresan franko emango du eta.

Poesiak bizi izan gaituen urtea

2002. urtean literatur generoren bat nabarmendu baldin bada, poesia izan da ezbairik gabe. Lehenik eta behin Koldo Izagirrek burutu dituen «XX. Mendeko Poesia Kaiarak» txapela kentzeko moduko lana da. Egia da antologoaren esku gelditu dela, berriz ere, egileen eta lanen zerrenda osatzeko erabakia, eta oso modu pertsonalean apailatu di-

tuela antologiak eta hauen hitzaurreak, baina denok onartzen diogu —lan eskerga izateaz gain— irizpide literarioak izan dituela nagusi, keria pertsonalekin bai, baina il-do batekiko koherentek, eta ez hego-haize batek eragindakoak.

Bestalde, deigarria da ikustea zein samurra izan den Izagirre poeten lanak aztertzean, berak duen irudi sinesgabe eta lehorretik urruti. Disimuluan ari bada ere, Izagirrerri poro guztietatik antzematen zaio afektibitatea.

Eta afektibitate izugarria nozitu dugu poeta askoren liburuetan. Emakumeek (Urkiza, Meabe, Gonzalez, Borda) atera dituzten liburu berrietako batzuetan gordintasuna horren handia izan da ezen mingarria ere suerta baitaiteke irakurtzea biluzte demasakoa. Ezin esan simulakroetan aritu direnik. Beren lanetan agertu duten ausardiak ez du gero isla handirik izan liburuei egindako erreseinetan. Kritikariak edo iruzkingileak ia ez dira busti. Ana Urkiza kexu agertu zen prentsan esanez emakumeen lana behar bezala ez dela kritikatzeko, gozoegi tratatzen dela. Ados egon naiteke emakumeen lana behar bezalako kritikarik jasotzen ez duelako iritziarekin (euskaraz eta beste hizkuntza guztietan ere bai), baina ez dut uste gozoegi tratatzen denik, edo beti ez da horrela izan behinik behin.

Durangorako atera ziren liburu eta egileen zerrenda ikustean (Uribe, Irigaray, Estankona, Erro, Ibarguren, Galarreta, Zamora, Igerabide, Borda, Amondarain, Balentzia, Urkiza, Aldamizetxebarria, Marrodan, Sestao, Tijero, Zelaieta) argi ikusten da poesiaren egoera osasuntsua dela oso. Nork bere soinua du, nork bere hari diskurtsibo berezkoa. Kutsu narratiboz blai sumatzen dira poemario batzuk. Beste batzuk, ordea, alanbik bihurtuak isuritako tanta destilatu eta kontzentratuak dira. Aurten poesiaren inbidia sentitu duen narrazioilea izan naiz.

Kulturgintza eta erakundeen arteko harreman zaila

Amaitzeko apunte laburra, labankorra izan daitekeen gaiaz. Sortzez pribatuak eta finantziarioz erdi-publikoak diren erakundeen egoera zailaz mintzatu nahi nuke, «oteiza aferaren sindromea» dei genezakeenaz.


Euskal kulturgintzak (eta irakaskuntzak) modu batera edo bestera, diru publikoa bereganatu behar du, ekoizten duen produktua nekez izango delako ehuneko ehunean errentagarria. Euskarazko merkatua txikia da, batetik, eta kulturak ez du kotizatzen balioen merkatuan, are gutxiago botereari aurre egiten baldin badio.

Honela bada, ikastolak dirulaguntzak jasotzen ikusten ditugu, eta gero ikusten dugu nola gonbidatu behar izaten duten diru-emailea euren festetara (Ibilaldia, Kilo-metroak, Nafarroa Oinez, Araba Euskaraz) egoera eskizofrenikoak sortuz hainbatetan. Eta gauza bera gertatzen da helduen euskalduntzean edo prentsan ere, herri aldizkari edo irratietan. Denak ekimen pribatuak dira, militantismo kopuru handiari esker sortuak, ideologia zehatza dute eta beren jarduera gauzatzeko independentzia aldarrikatu dute, ulertzekoa denez.

Kontua da urteroko dirulaguntzarik gabe elkarte hauek ezin izango zutela aurrera egin. Eta erakundeak ere, egitura esklerotiko bihurtu nahi ez badute, ekimen pribatuaren dinamismoa fagozitzatzeko beharrean daude.

Joan den abenduaren 3an Euskararen Eguna zen eta EIZIEk ospatzeko asmoa zuen. Aitzakia ederra zuen, Literatura Unibertsaleko 100. titulua kaleratu berria baitzuen. Festa pribatu eta etxekoentzat gozatu ordez, itzultzaileekin elkartu ginenok Euskalduna Jauregian amaitu genuen, lehendakariarekin batera diasporako euskaldunei gabonak (edo egunonak) ematen satelitearen bidez. Pasaia ezinbestekoa, omen.

Zaila da jakitea zein den muga. Noraino den pasaia edo pasu-eskubidea, eta noiz hasten den izaten pemada eskubidea. ¶



Euskararen inguruko diskurtsoak eta disonantzia kognitiboa

Azken hogeita hamar urteotako ibilbide soziolinguistikoan hainbat hizkuntz asmo zapuztuta gelditu dira, gure eskarmentu falta zela medio, susmatu ezin genituen zailtasunek oztopatuta.

Egun, ustekabe horiek, hau da, nahi genuen eta lortzen ari garenaren arteko zuloek, euskaltzale askoren euskararekiko pertzepzioa aldatu dute edo aldaraz dezakete. Eta aldaketa horiek garai bateko uste okerrak zuzentzeko balio dutenean, ongi etorriak. Alabaina, euskararekiko iritzi-aldaketa horretan arriskua ere badago: etsipenarena, hain zuzen. Hori, bestalde, ulergarria litzateke horrenbeste esfortzu eskaini zaion borroka hori frustrazioaren iturburu bihurtuz gero.

Eta arrisku horren gakoa Festinger-ek aspaldian garatu zuen 'disonantzia kognitibo' kontzeptuan datza:

Festinger-en arabera, pentsatzen eta egiten denaren arteko inkongruentzia gertatzen denean, disonantzia egoera ematen da. Disonantzia egoera horrek tentsioa sortzen du, eta subjektua oreka berrezartzera bultzatzen. Orokorrean, oreka hori bereganatzeko bidea aurretiko jarrerak aldatuz ematen da, nahiz eta beste aukera batzuk ere zilegi diren. (Nekane Arratibel: «HIZNET hizkuntza plangintza ikastaroa 02-03», 6. irakasgaia: 11. or.)

Euskararen aldeko jarrera asko baretu dela euskaltzaleon ahotan dabilen kontua da. Eta, edozein aldarrikapenen aldeko tentsio-puntuari gizarteak luzaroan euts diezaiola ezinezkoa bada ere, euskararen aldeko jarreetan susmatzen den gainbeheran beste zer edo zer ere badago. Izan ere, garai batean gure hizkuntza azkar baino azkarra go berreskuratu eta normaltzea espero genuen bertako hizkuntza nagusia bihurtzeraino, eta, egun, bat baino gehiago hasi da pentsatzen asmo hori soilik zonalde bat-

zuetan eta ederki kostata lor daitekeen jomuga dela. Euskaltzale amorratu askok, eguneroko jardunean erdara erabiltzera ezinbestez behartuta, amore eman (behar izan?) dute garai bateko asmotan; ilusioz beteta euskara ikasteari ekin zioten erdaldun batzuk, urteak joan eta urteak etorri gutxieneko erabilera maila lortzeko paradarik ezean, ikasitako guztia galtzen ari direla (edo, jada, galdu dutela) ohartu dira; hori guztia, haurrak euskalduntzeko ahaleginetan jarritako ilusio asegabea ahaztu gabe. Eta disonantzia kognitiboaren mekanismoa aintzat hartuta, garai bateko asmo utopiko eta egungo eskarmentu etsigarrien arteko amildegia eragiten duen autokulpabilizazioa ekiditeko, norberak garai bateko hizkuntz ilusioak murriztu eta apaltzeko tentazioa senti dezake.

Euskararekiko itxaropenen gainbehera hori, alabaina, bideratu beharreko arriskua da. Aurrera egingo badugu, ilusio eta errealtatearen arteko kontraesan hori ezinbestez onartu eta gainditu beharra dugu. Nola? Hasteko, garai bateko euskararekiko asmoek orduan kalkulatu baino oztopo zailago eta iraunkorragoekin topo egin dutela onartuz; gero, hasierako planteamenduak egokitu —etsi eta amore eman gabe— eta, berauek lortzeko, estrategia berriak garatuz.

Azken finean, joan zen mendeko 70eko hamarkadako diskurtsoak berriro eta egokitze sasoia iritsi zaigula barneratu behar dugu.

Hizkuntz egoeraren gaineko diskurtso lausotuak

Diskurtsoen egokitze horretan, gauza asko sartzen da, adibidez, euskararentzat landu nahi dugun proiektuarena. Plangintzan (edozein esparru eta motatako plangintzatan) diharduenak ondo daki nora iritsi nahi den argitzea funtsezkoa dela hartaraino eman beharreko pausoak ere ondo planifikatu ahal izateko.

Alabaina, sinistuta nago euskararen kasuan hainbat gauza oraindik ez dugula ondo definitu. Euskararen ele-

bakartasuna ala elebitasuna nahi dugu? Elebitasuna hautzekotan, nolakoa? Hizkuntz funtzio guztietan edo diglosia bezala ulertu ohi dena, hau da, hizkuntza bakoitzak bere funtzio-eremu bereiztuarekin? Elebakartasuna (edo elebitasuna/diglosia) eskualde guzti-guztietan edo lekuan lekuko egoera propioa?

Euskarantzat ditugun helburuetara mugaturik, nork bere ideia propioa omen du, baina beldur naiz ez ote diren gutxi izango benetan zer nahi duten ondo dakitenak. Pluraltasuna ez litzateke kezagarria izango, baina bai asmoen definiziorik eza. Nora jo orduan? Eta nola ailegatu?

Puntu honetara iritsita, ezin egokiago deritzot Mikel Zalbidek Fishman-engandik hartutako hitzak gogorarazteari:

(...) gaixotasunak eta gaixotasunak (larriak eta arinak, edo ez hain larriak) daudela egon. Era berean, sendabideak ere paliatiboak direla batzuk (oinazea kentzen edo molestia arintzen dutenak, nahiz gaixotasunak bere horretan segi edo okerrera egin), eta amelioratiboak, hobera egitekoak alegia, besteak (gaixotasunari aurrez aurre erantzun eta, asko edo gutxi, osasuna hobetzen dutenak). Reversing Language Shift kontuan ari denak garbi bereizi behar ditu bi horiek, bai Language Shift-aren deskribapenean eta bai sendabideen lehentasun-zerrenda prestatzerakoan. Pulmonia duenari eta sudurreko muki-jarioa daukanari ezin diezu trataera bera eman. (Mikel Zalbide: «HIZNET hizkuntza plangintza ikastaroa 02-03», 3. irakasgaia: 15. or.)

Egokiak, bai, zer-nolako egoera dugun eta lortu nahi duguna zer den, abiatu baino lehenago ondo zehaztu beharreko puntuak baitira. Ideia hori, funtsean, bat dator hemen beste batzuetan defendatu dugun ikuspuntuarekin (ikus *Jakin* 132) eta baita diskurtso berriak garatzeko premiarekin ere.

Bestalde, helburuak eta diskurtsoak argitzeko asmotan, behar-beharrezkoa da terminologian ere adostasun puntuak aurkitzea. Edo, adostasuna ezinezkoa izatekotan, gutxienez gutako bakoitzak termino bakoitzarekin zer esan nahi duen argitzea (aitortu behar dut, terminologia-

ren zehaztasunak duen garrantziaz Mikel Zalbidek ohar-tarazi ninduela; mila esker, Mikel).

Bi formazio maila, bi diskurtso ezberdin

Oraingoan, gizarte eta euskalgintzaren arteko hizkuntz errealitatearen irakurketan dagoen amildegira igaro nahi dugu. Bai, amildegia diot; izan ere, euskalgintza badoa bi-dea urratzen, prestakuntza eta baliabidez inoiz baino hobeto hornituta; baina gizartea ez da neurri berean erantzuten ari.

Adibidez, EAEko gizartearen planteamendua ulertze-ko, oso adierazgarriak dira «EAEko hizkuntz gaitasuna eta asmoak» ikerlanean jasotzen diren emaitzak. Horien araber (www1.euskadi.net/estudios_sociologicos), jendeak euskara hizkuntza normalizatua nahi duela pentsa daiteke, ondoko zifrak kontuan hartuta: heritarren %81ek diote etorkizunean euskaraz eta gaztelaniaz, bietan berdin, hitz egin beharko litzatekeela.

Au rera, ikerlan berean eskaintzen zaigun beste galdera bat dugu; honako hau: «*Zure seme-alabak aukerarik izan du (eskolaz kanpoko) ekintza horiek zuk nahi zenukeen hizkuntzetan egiteko?*». Erantzunak, honako hauek dira:

«*Gurasoentzat gustukoa den hizkuntzan, seme-alabek eskola-orduz kanpoko ekintzak burutzeko parada izan dutela adierazten dute guraso gehienek (%74 eta %83 bitartean, gaztetxoek buruturiko ekintzaren arabera). Ekintza horietan jardutean erabilitako hizkuntzarekin ados ez dauden gurasoen kopurua apala da, eta horien artean gailentzen dira gaztelania hutsean izatea salatzen dutenak (%8 eta %17 bitartean, ekintzaren arabera).*»

Ekintzak erdara hutsean izatearekin dagoen desadostasun maila hain apala izanik, batek esango luke ume eta gazteen munduan euskarari eskaini nahi zaion lekua ia asebeteta dagoela.

Halere, EAEko 13-14 urteko neska-mutiko euskaldunak direnek —gaztetxo guztien %62k— bestelako iritzia dakarkigute: %38k beti erdaraz egiten du eskola-orduz

kanpoko kirol-monitorearekin (eta, jakina da monitoreak eza rriko duela taldearen jarduera-hizkuntza) ikastetxean bertan; oraindik altuagoa da erdararen erabilera ekintzak ikastetxetik at direnean: besteak beste, neska-mutiko euskaldunen %47 beti erdaraz aritzen dira parrokia taldean eta %40 kirol taldean (Kontxesi Berrio-Otxoa: *Etorkizuna Aurreikusten 99: Euskal Herriko gaztetxoak eta euskara*).

Beraz, neska-mutiko guztien (euskaldun eta erdaldu-
nen) erdararen erabilera gurasoek susmatzen dutena baino askoz hedatuagoa dago, euskalgintzan edo hezkuntza munduan dabiltzanek ondo dakiten bezala. Kontraesan nabarmen horretan oker dabiltzanak, zoritxarrez, gurasoak dira ondorioztatu behar dugu.

Gurasoen kontraesanak eta uste ustel horiek, alabaina, ulergarriak dira zenbait arrazoiri erreparatuta. Lehenengo, egungo guraso gehienak erdaldunak dira eta euskararen erabilera ebaluatzeko perspektiba falta dute; edo, bestela esanda, euskaraz zertxobait entzunda ere, errealitate hori handiturik antzemango dute. Bigarren arrazoiak: duela urte batzuetatik hona euskarak izan duen hobe-kuntza ikusita euskaltzale batzuek —guraso asko ere, barne— lasaitu ederra hartu dute. Hirugarrenik, euskaltzale xeheek gure hizkuntzaren egoera patxada ederraz —lasaiegi— hartzen dute, soziolinguistikaz duten ezjakintasuna dela medio; ez dira guztiz jabetzen euskara eta erdararen artean dagoen egoera tirabiratsu eta borroka latz horietan, euskarak pairatzen duen meneko egoeraz.

Ezjakintasun soziolinguistikoa diskurtso okerraren oinarri

Lantegi nahiz administrazioan diharduten euskara teknikariek ondo baino hobeto ezagutzen dute formazio-hutsune hori; izan ere, euskararen normalkuntzarako estrategia edo neurri berriak proposatzerakoan, horiek onartu behar dituztenei zergatiak azaltzeko nahikoa lan du teknikari gaixoak. Hots, proposaturikoa enpresetako edo administrazio nagusiek gutizia edo gehiegikeriatzat

jotzeko arriskua dago, errealitate soziolinguistikoko korapilatsuaren benetako premiak hurbiletik ere ezagutzen ez dituztelako.

Gizarteak soziolinguistikaz duen ezjakintasuna da euskalgintzako aditu eta euskaltzale xumeen diskurtsoen arteko arrakalaren zioa. Batetik, euskalgintzako aditua kezkatu agertzen da, bere diskurtsoak gizartean topatzen dituen zailtasunak ikusita. Bestetik, euskara ematen ari den aurrerapausoak nahikoak direla sinistuta, borondate oneko euskaltzaleak ez du gure hizkuntzaren larrialdia ezagutzen.

Euskararen diskurtsoak berriro ahal izateko, gizarteak soziolinguistikaz blaitu behar du, bere diskurtsoak euskalgintzaren planteamenduekin bat egin dezan. Bestela, oinarri sozialaren faltan, euskalgintzaren lana alferrikakoa izango da.¶

Alegiazko eta egiazko errealitatea

Prestige-ren historia beltzaren inguruan teknikari eta politikarien funtzioak kolokan ibili dira behin eta berriz. Teknikariek arrazoi izango dute gehientsuenetan, baina, asmatzen ez dutenetan, ez zaie erantzukizun publikorik leporatzen. Politikariak, aldiz, ez dira gehienetan teknikariak bezain jakitun, baina, bizi dugun telepolis mediatiko honetan, jendaurreko erantzukizuna euren ohi da bete-betean, gizartearen pertzepzioa zein kontu-hartzea euren bano ez dagozkien-eta, ondorio guzti-guztietan.

Ustea ustel, non dago alegiazko eta egiazko errealitateen arteko oreka? Arazoa *Prestige*-rena bezalako hondamendiei dagokieke, baina baita Administrazio Publikoaren ardurapeko gainerako larrialdiei eta gizarteari zuzendutako hainbat deialdi eta zerbitzuri ere.

Teknikariak eta komunikabideak bat ez datozenean

Prestige petroliontzia abenduaren 19an hondoratu zen. Astebete geroago, hilaren 26an, haren jarioen jarraipena egiteko euskal erakundearteko batzordea sortu zen eta abenduaren 4an hirugarrenez bildu. Ia errutinazko bilera. Abenduaren 6tik 8ra bitarteko «zubia» zetorren eta egokien laburbilduma egiteko egun aproposa.

Mahai inguruan bildu ziren arrantza, osasun publiko, kontsumo, larrialdi, segurtasun, ingurumen, portu, meteorologia, ozeanografia eta komunikazio-arduradunak, guztiok lehendakariordetzaren ardurapean. Jende prestua eta nork bere gaiak jakituna segurutik. Eta, guztia gutxi bailitzan, euren agintean zituzten Euskal Autonomia Erkidegoaren baliapide publiko den-denak.

Lan-esparru bakoitzeko premia eta ekipamenduen balantzea egiteaz gainera, informatikariek azaldu zituzten

satelitez lortutako argazki miragarriak, ozeanografoek eman zuten itsas-korronte koloretsuen berri eta meteorologoek hurrengo egunetako haize-boladen norabide-azkonak power point distiratsuz iragarri. Ondorioa bat besterik ez zen: txarrean ere, ordurako Asturias inguruan zeuden orbanak ez ziren euskal itsasbazterrera hamar egun baino lehenago helduko. Beraz, batzordekideak etxera joan zitezkeen asteburu luzea lasai igarotzera, zientzia eta teknologiarik aurreratuenek bermatzen baitzuten ez zela zertaz kezkatu beharrik.

Hainbeste jenderen artean beti izan ohi da zazpiki edo kakatiren bat, teknologiaz askorik ez dakielako, eszeptiko samarra delako edo jendaurrean irrigami gelditzearen beldur delako, ausartzen dena galdetzen: bapo, baina demagun haizeak, korronteak, abiadak, norabideak edo gauerdiko ahuntzaren ezturen putzak aldatzen direla eta jai egunotan, ustekabeen, harrapatzen gaituztela... Teknikarien erantzuna, berriz: hori ez da hurrengo hamar egunetan (abenduak 14) gertatuko eta zer esanik ez astelehen aurretik (abenduak 9). Hala ere, lehen orbanak aratsalde hartan bertan ziren Kantabrian eta biharamunean Matxixakoraino heldu ziren (abenduak 5). Zer pasatu zen?

Strictu sensu historiak frogatu du teknikariek arazoi zutela, telebegibistan eta telekontrolpean zituzten fuel-hondakin galant samarrak ez baitziren ez hamar eta ez berrogeita hamar egunetan heldu, baina hurrengo egunetan (abenduak 5) Barbadun, Atxabiril edo Azkorri hondartzak lohituak ikusi zituzten hiritarrak ez ziren iritzi bereko izan, are gutxiago euskal komunikabideen informazio aztoratuari jaramonik eginez gero. Jendeak marea beltza nahi zuen etxeondoan eta nahi zuena ikusi zuen.

Zalantzarik gabe egia oso subjektiboa da. Izan ere, nor ote egia absolututik hurbilago: marea beltzik ez zela orduan iritsiko iragarri zuten teknikariak ala, Ertzaintzak ezetz esan zielako, itsaso garbi-garbi gainetik helikopteroz ibiltzeagatik Polizia Nazionalari doako erreportajea egin zioten ETBren kazetariak? Zein da egiazko errealitatea eta zein alegiazkoa?

Negua albiste bihurtu

Urtarrilaren 9an, beharbada lehenengo aldiz lanean daramatzadan 40 urteetan, etxean gelditzea erabaki nuen. Egia da aitzakiarik ez nuela falta (Soraluzeko autopista-barrera moztua eta Urkiola mendatea elurtzekotan edo) eta etxean lan egiteko aukera guztiak nituela (PCa, internet, sakelako telefonoa, bluetooth sistema...); baina, arrazoirik nagusiena Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritzak zabaldu-tako gomendioa izan zen, alegia: elurrak itsasbazterreraino heldu behar zuen eta, ahal izanez gero, autoa hartzerik komeni ez. Eta nik, estreinako, jaramon egin... Nahiz eta gero elurra 500 metrotik gora baino ez mamitu eta Urkiolarik ez itxi, Pello Zabalak alde zuzenetik aurretik zuhur eta apal asko iragarria zuenez.

Geroago jakin dut, ordea, Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritzak ikaragarritzko zalantza handiak izan zituela negu-plan berezirik indarrean jarri ala ez —teknikariek eskuarte zizuten datu objektiboak ez baitziren hain larriak—, baina, zuhertasunaren zuhertasunez, badaezpada alerta-egoera erabaki zuela, zenbait erakunde eta komunikabidetan nagusitu ziren ustezko larrialdi-hotsen eraginez.

Gero eta gizarte «superbabestuagoa» bizi dugu. Gure telepolis honetan, erakundeek eta komunikabideek denetarikoz errezetak ematen dizkigute: oporrak baldin badatoz autoa nola prestatu, zein ordutan irten eta zein bidetatik abiatu; gaixotu ez gaitezen noiz txertua hartu eta ekaitza baldin badator zelan mendebalari aurre egin. Iñaki Gabilondok SER katearen mikrofonoetatik ironiaz esan bezala: «Negua heldu zaigu eta denon artean albiste bihurtu dugu».

Gizarte mediatiko honetan Administrazio Publikoak ez daki nola asmatu. Nasaitxo jokatzen baldin badu eta gero zezena etorri... aurreikuspenik ezaren salaketa lepora dakioke; zuhurregi azaltzen baldin bada eta ezer gutxi pasatu... lar deiadargile. Datuak beti dira objektibo samarrak; interpretazioak, aldiz, subjektiboak, alegiazko eta egiazko errealitatearen arteko zubigintzan.

Alegiazko eta egiazko gaixoak

Liburu dendetan ikusi baino ez dago konturatzeko telepoliseko biztanleek liburuak erosten jarraitzen dutela, baina bidaiak, sexua, brikolajea, literatura arrosa eta sasiosasuna direla gairik salduenak. Borgesen hitzak aipatzekotan: «Todo se aplebeya».

Besteak beste, osasuna da, beharbada, gizarte aurreratuaren lorpenik handienetakoa. Osasuna dugu mendebaldearen totem berria, eta ez da egunkari, aldizkari eta telebistarik osasun-informazio, mediku-kontsulta edo ospitale-telesailik eskaintzen ez duenik. Kontsumismoa osasunera heldu da eta Juan Sánchez Vallejo eibartar psikiatrak esan bezala (*La vida mala. La forma de enfermar del hombre moderno*, Iralka Editoriala, 2003), jendeak ez ditu eskaintzen zaizkion osasun-zerbitzuak baloratzen, gero eta gehiago eskatzen eta eskatzen baizik.

Psikiatra honen datuen arabera, edozein egunetan larrialditara jotzen duten ehun euskaldunetatik hamarrek baino ez dute eri organikoren bat. Gainerako %90ek husteriaren bat besterik ez du, alegia: zefalea arina, nekealdi arrunta edo sukarrak gabeko eztarriko min soila. Euskal hiritar bakoitza, batez beste, sei aldiz joan ohi da medikuarengana urtean zehar, beharrik gabe gehientsuenetan, jakineko gaixotasun fisikoren batez baino nolabaiteko kontsumismo aldarrikatzaileak eraginda.

Gizarte superbabestu honetan, jendea gero eta gutxiago dago minik txikiena ere jasateko prest. Eta, nork bere burua ongi zainduta sentitu nahirik edo eguneroko bizitzak sorrarazitako frustrazioak zirikatuta, hiritarra al-bait lehen medikuarengana joan ohi da ate joka, ez eze-lango gaixotasun fisiko jakinik duelako, baizik eta bere hainbat egonezin psikiko gorpuzten edo somatizatzen duelako.

Galdera ezinbestekoa da: zein da egiazko gaixoa eta zein alegiazkoa? Zerk bultzatzen ditu milaka lagun premia objektiborik gabe eritegietara? Komunikabideek gaixo potentzialak informatzen dituzte ala kontsumitzaile hipokondriakoak suspertzen?

Gudua saldu

Orain dela 12 urte, 1991ko urtarrilaren 17tik otsailaren 28ra bitartean, AEBen agintepeko gudaroste multinazionalak Irak azpiratu zuen. Gatazka armatu hura «telebistaz zuzenean» emandako lehen gudutzat pasatu da historia-ra, historia berberak benetan ezer gutxi ikusi zela frogatu duen arren geroztik. Ez da horren ezaguna, ordea, gudu hura marketing agentzia batek laborategian prestatu eta jendaurrean saldu zuena.

Aurreko abuztuan, Irak Kuwaiten sartu zenean, iparramerikariek gehienek ez zekiten emiretari hura non zenik ere. Dee Alsop enpresak «Kuwait askearen aldeko hiritarrak» lelopean 10 milioi dolarren kanpaina eratu arren, sondeoez azaldu zuten estatubatuar gizartea ez zegoela inondik ere gerraren alde. Sei hilabete geroago hiritarren %85ek bere gobernuaren eraso onetsi zuen. Zerk eragin zuen aldaketa hura? Merezimendua Hill & Knowlton harreman publikotako agentziari zor zaio. Gerra saldu zezan enkargatu zitzaion eta saldu egin zuen, beste 10,8 milioi dolarren truke.

Kanpaina telebistan hasi zen, 15 urteko neskatila beltzaran batek negar-zotinka albistegietan esan zuenean: «Eurak —Sadamen militarrek— ospitalean sartu, inkubagailuetan zeuden haurrei oxigenoa moztu eta denak hil dituzte. Nik ikusi dut». Lehen informazioen arabera 22 ziren hildako haurrak, zenbait egun geroago 312. Inork ez zuen albistea zalantzan jarri. George Bush aita biziki haserretu zen, Giza-eskubideen Batzordeak onartezintzat jo zuen, UNOn nazioarteko eztabaida izan zen, Amnesty International-ek hildako haur-kopurua ez zela hain handia argitu zuen eta Kongresuak Etxe Zuriak eskatutako eraso militarra onartu.

Gero jakin zen neskatila gaixo ezezagun hura ez zela kuwaitar errefuxiatua, Kuwaiteko enbaxadorearen Nayira alaba baizik; ospitalera hurbildu ziren kazetariak ez zutela sekula ezer ikusteko aukerarik izan; bertako medikuek ez zutela inoiz gertakari haren frogarik izan eta Hill & Knowlton agentziak diulaguntzaren bat edo beste luzatu ziola

Kongresuko Giza-eskubideen Batzordeari. Baina alegiazko sasi-albistea argitu zenerako guduak egiazko errealitate zen.

Hamabi urte geroago, zein izango ote da George Bush semeak erabiliko duen alegiazko arrazoia Iraken aurkako guduak gutxieneko errealitate-itxurak bete ditzan?

Telemeteorologia


Meteorologia gero eta garrantzi gehiago hartzen ari da gizarte moderno eta aurreratuetan. Eguraldiak sekulako eragina izan du betidanik nekazaritzan, eta haren garrantzia nolabait murriztu zen industri-iraultzarekin batera. XIX. mendeko gizarte metalmekanikoak pentsatu zuen zientzia eta teknologia areagotu ahala gizakiak naturaren baldintzapezetatik ihes egin ahal izango zuela. Eguraldia aldaezina bezain menderagaitza zenez gero, konponbidea haren eraginpetik at funtzionatuko lukeen eremu alternatiboa eraikitzea izan zen. Hau da, eguraldiaren menpeko gizarte zaharkituaz ahaztu eta kitto.

Telematikak, ordea, erabat aldatu du gizarte industriatuaren eguraldiarekiko jarrera: kontua ez da, noski, eguraldia aldatzea (oraingoz, behintzat), baina ezta, zer eginik ez balitz bezala, beste erremediorik ez balego moduan, jaramonik ez egitea ere. Gaur egungo meteorologiak alde zuzeneko estrategiari ekin dio: ahalik eta informazio gehien aurretikako estrategiari ekin dio: ahalik eta informazio hori merkatuan eskaini eta saltzeari.

Eguratsaren ezagupen zehatz-mehatza eta eguraldiaren pronostikoa oinarri-oinarizko tresnak dira gaur egun arakastarik lortu nahi duten edozein sektore-ekonomikorentzat: garraio-logistika (agenda-plangintza, bide-aukera...), herritarren osasuna (larrialdiak, alde zuzeneko egitasmoak...), aire-nabigazioa (hegazkin-diseinua, trafikoko bidatzak...), turismoa (oporraldiak, zirkuituak...), aisialdia (parke tematikoak, olgeta-parkeak...), negozio-kongresuak (estatistikaren araberrako egutegi-aukera), energiagintza (parke eolikoen errentagaitasuna, tximini-kokapena...), etxegintza (material-aukera, berokuntza...), nekazaritza (ereint-

za, landaketa hidroponikoak...), abelzaintza (abere-mota, gaixoberatasuna...) etab.

Seguritik tenporen berri jakitea beti ere onuragarri da, baina meteorologia gaur egun indarrean dauden lanabes teknologikorik berrienez baliatzen da, alegia: estazio automatiko, sentso erremoto, satellite, teleargazki sistema eta, neurri handi-handi batez, uneoro airean doazen milaka hegazkinek ematen duten informazioaz. Inoiz hegazkin guztiak lurrean geratuko balira, meteorologoen euren eguneroko informazio-iturriaren %50 (AEBetan %80) galduko lukete.¶



JAKiN

Tolosa hiribidea, 103-1.C
20018 DONOSTIA
Tel. 943.21.80.92
Fax. 943.21.82.07
jakin@jakingunea.com